

ADIK
ZIO
EN
VII. Plana

Euskadi 2017-2021

2020 TXOSTENA
ADIKZIOEN VII. PLANA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

VITORIA-GASTEIZ, 2021

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:

https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001

Argitaraldia:

1.a, 2021eko urria

Ale-kopurua:

25 ale



Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioa. Osasun Saila

Egileak:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza
Osasun Saila

Internet:

www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastian k, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ

Diseinua eta Maketazioa:

Osasun Publikoaren Eta Adikzioen Zuzendaritza
Osasun Saila

Inprimaketa:

Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua

L.G.:

LG G 666-2021

Aurkibidea


	Orria
Sarrera	5
Prozesuaren adierazleen laburpena	7
2020ko ekintzak	24
1. ARDATZA: Adikzioen prebentzioa eta osasunaren sustapena	26
2. ARDATZA: Eskaintzaren murrizketa	48
3. ARDATZA: Osasun-laguntza, laguntza soziosanitarioa eta gizarteratzea	52
4. ARDATZA: Ezagutzaren, prestakuntzaren eta ebaluazioaren kudeaketa	59
5. ARDATZA: Lidergoa eta koordinazioa	67

Sarrera

Adikzioen VII. Planaren 2020ko ekitaldiko ebaluazio-txosten honen bidez, aldi horretan abiarazitako ekintzei buruzko ikuspegi orokor bat eman nahi dugu, planaren garapen-maila ezagutzeko. Izan ere, substantziadun edo substantziarik gabeko adikzioek EAEko biztanleengan duten eragina murriztea da Planaren azken helburua. Jarraipena zenbait prozesu-adierazletan oinarrituta egiten da, jarduera-ildoan ezarpen progresiboa ebaluatzeko.

Prozesuaren adierazleetan oinarrituta, planaren helburuak lortzeko egindako lanaren aurrerapena neurtzen da. Informazioa Adikzioen Planaren inplikaturako eragile guztiek -Eusko Jaurlaritzak, Osakidetzak, toki-erakundeak, hirugarren sektoreko erakundeak eta sektore publikoak, oro har- egindako lanari buruzko datuetatik lortzen da.

Txosten honetan, planaren ardatz bakoitzaren prozesu-adierazleak jasotzen dira, alde batetik, eta, bestetik, berriz, 2020an helburuak lortzeko egindako ekintzak.



https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/accciones_plan/es_def/adjuntos/VII_plan_adicciones_eu.pdf

Aipatzekoa da COVID-19 pandemiak eragin handia izan duela adikzioen prebentzioan eta tratamenduan egindako lanean, 2020an argitaratutako *COVID-19aren inpaktua eta ondorioak adikzioen eremuan, Euskadin* txostenak adierazten duen bezala. Txosten honetan emandako datuek ere hori islatzen dute.

Prozesuaren adierazleen laburpena

Adikzioen VII. Planak prozesuaren adierazle batzuk ezartzen ditu, ardatz bakoitzean diseinatutako ekintzen eta helburuen ezarpena ebaluatzeko. Eskema horretan oinarrituta, hurrengo epigrafean prozesu-adierazle horiek lortzen duten magnitudea aztertzen da, 2020an egindako aurrerapena ezagutu ahal izateko.

1. ARDATZA. ADIKZIOEN PREBENTZIOA ETA OSASUNAREN SUSTAPENA

2018an Osasun Sailaren adikzioen arloko laguntzen deialdira aurkezten diren toki-erakundeek eta GKE-ek emandako datuak ustiatzeko aplikazio informatikoa abian jarri zenetik, etengabeko hobekuntza-lana egin da, programa eta proiektuek lortutako emaitzen eta irismenen adierazleen ebaluazio zehatzagoa lortzeko.

Alde horretatik, 2019an eta 2020an, laguntzak izapidetzeko eta datuak ustiatzeko aplikazioa eskatzeko eta justifikatzeko ereduak hobetzen jarraitu da. Horri esker, errazago zuzendu eta araztu daiteke erregistratutako informazioa, eta, ondorioz, emaitzen ebaluazioa erakunde eskatzaileek egindakoaren arabera eta leialagoa da.


Parte-hartzaileen kopurua areagotzea eskola-, familia- eta komunitate-eremuetan egindako prebentzio unibertsaleko proiektuetan. Guztira eta sexuaren arabera bereizita. Abiapuntua: 2017.

Ondorengo taula honetan, prebentzio unibertsaleko proiektuen eta jarduera-eremuetan parte hartzen duten pertsonen kopuruari buruzko informazioa jaso da. Herritar guztiei, oro har, zuzenduta daude.

Datuak toki erakundeek eta hirugarren sektoreak laguntzen aginduaren bidez egindako proiektuen eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak zuzenean kontratatutako zerbitzuen baturaren emaitza dira.

		Eremua		
		Eskola	Familia	Komunitatea
2017	Proiektu kopurua	100	38	40
	Parte-hartzaileen guztizko kopurua	126.612	11.607	16.749
2018	Proiektu kopurua	63	31	29
	Gizonak	75.085	3.082	13.391
	Emakumeak	83.002	5.625	13.519
	Parte-hartzaileen guztizko kopurua	158.087	8.657	26.910
2019	Proiektu kopurua	61	27	31
	Gizonak	71.213	2.807	15.006
	Emakumeak	73.777	6.170	14.352
	Parte-hartzaileen guztizko kopurua	144.990	8.977	29.358
2020	Proiektu kopurua	57	29	27
	Gizonak	52.010	1.601	4.054
	Emakumeak	52.270	4.917	6.532
	Parte-hartzaileen guztizko kopurua	104.280	6.518	4.586

Oharra: parte-hartzaileen kopurua toki-erakundeek eta hirugarren sektoreak emandako datuetatik ateratzen da; beraz, baliteke parte-hartzaileak zenbatzean bikoiztasunen bat gertatzea.



Aurreko grafikoan ikus daitekeenez, prebentzio unibertsalaren helburuaren barruan, toki-erakundeek, GKEen eta Eusko Jaurlaritzaren baliabide gehienak eskola-eremuan biltzen dira. Horregatik, 2020ra arte, eta Adikzioen VII. Plana indarrean dagoen 4 urteetan, unibertsitatez kanpoko hezkuntza-maila guztietako 500.000 ikasle, guraso eta irakasle baino gehiagok parte hartzen dute eskola-prebentzioko programa batean, gutxienez. Gainera, nabarmendu behar da eskola-, familia- eta komunitate-eremuetan parte hartzeko joerak egonkor jarraitzen duela, 2020an eta COVID-19aren pandemiaren ondorioz parte-hartzaile kopurua aldi osoko mailarik baxuenetara iritsi arte.


Parte-hartzaileen kopurua areagotzea substantzien kontsumoei eta adikzioa sortzeko arriskua duten gehiegizko jokabideei lotutako arriskuak arintzeko proiektuetan, eta arrisku-egoeran edo ahultasun-egoeran dauden kolektiboetan eta pertsonengan eskola, familia, komunitate, aisia eta jai-eremuetan. Guztira eta sexuaren arabera berezita. Abiapuntua: 2017.

Hurrengo taulan, prebentzio selektiboaren helburuaren barruan lortutako emaitzak jaso dira. Jarduera-ildo horretan, biztanleria-geruza edo -talde jakin batera bideratutako proiektuak biltzen dira, biztanleria hori adikzioekiko arrisku eta kalteberatasun handiago baten aurrean jartzen duen ezaugarri edo faktore espezifikoren batek definituta.

Datuak toki erakundeek eta hirugarren sektoreak laguntzen aginduaren bidez egindako proiektuen eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak zuzenean kontratatutako zerbitzuen baturaren emaitza dira.

		Eremua			
		Eskola	Familia	Komunitatea	Aisia eta jaiak
2017	Proiektu kopurua	42	18	32	47
	Parte-hartzaileen guztizko kopurua	43.321	1.663	16.920	34.585
2018	Proiektu kopurua	26	12	31	26
	Gizonak	16.561	545	6.574	25.246
	Emakumeak	14.378	899	6.679	16.722
	Parte-hartzaileen guztizko kopurua	30.939	1.444	13.253	41.968
2019	Proiektu kopurua	28	11	19	26
	Gizonak	16.586	478	4.745	24.779
	Emakumeak	17.889	1.017	3.856	18.869
	Parte-hartzaileen guztizko kopurua	34.475	1.495	8.601	43.648
2020	Proiektu kopurua	30	11	17	14
	Gizonak	14.946	366	1.717	6.590
	Emakumeak	16.098	536	1.601	5.722
	Parte-hartzaileen guztizko kopurua	31.044	902	3.318	12.312

Oharra: parte-hartzaileen kopurua toki-erakundeek eta hirugarren sektoreak emandako datuetatik ateratzen da; beraz, baliteke parte-hartzaileak zenbatzean bikoiztasunen bat gertatzea.



Grafikoan argi eta garbi ikus daiteke herritarrek parte-hartze handiagoa dutela eskola-, aisialdi- eta jai-eremuetako prebentzio selektiboko proiektuetan, nahiz eta, azken eremu horretan, oso esanguratsua den parte-hartzeak behera egin duela 2020an, pandemiaren ondorioengatik eta pertsonen mugikortasunaren murrizketengatik. Hala, 2019an 43.648 pertsonak hartu zuten parte jai- eta aisialdi-arloko prebentzio-proiektuetan; 2020an, berriz, 12.312 pertsonak hartu zuten parte, hau da, aurreko urteko parte-hartzaileen %28k.


Parte-hartzaileen kopurua areagotzea alkoholaren, tabakoaren eta kalamuaren kontsumoaren prebentziorako programa espezifikotan. Guztira eta sexuaren arabera.

Hurrengo taulan edari alkoholdunen, tabakoaren eta kalamuaren kontsumoa prebenitzeko berriazko proiektuen hartzaileen kopurua jaso da.

Datuak toki erakundeek eta hirugarren sektoreak laguntzen aginduaren bidez egindako proiektuen eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak zuzenean kontratatutako zerbitzuen baturaren emaitza dira.

		Proiektu kopurua	Gizonak	Emakumeak	Parte-hartzaileen guztizko kopurua
2018	Alkohola	10	14.117	10.119	24.236
	Tabakoa	6	4.929	6.646	11.575
	Kalamua	5	1.785	1.665	3.450
2019	Alkohola	8	18.565	14.706	33.270
	Tabakoa	3	4.804	4.808	9.612
	Kalamua	3	691	361	1.052
2020	Alkohola	6	2.928	2.900	5.828
	Tabakoa	3	1.628	4.387	6.015
	Kalamua	1	46	15	61

Oharra: parte-hartzaileen kopurua toki-erakundeek eta hirugarren sektoreak emandako datuetatik ateratzen da; beraz, baliteke parte-hartzaileak zenbatzean bikoiztasunen bat gertatzea.



Grafikoan, alkoholaren, tabakoaren edo kalamuaren lanketa espezifikoa duten programen ehunekoak eta prebentzio-programa ez-espezifikoetan parte hartzen duten pertsonen ehunekoan alderatu dira. Hala, prebentzio unibertsal eta selektiboko programen hartzaileen %7k alkoholaren, tabakoaren edo kalamuaren prebentzioari soilik heltzen dion esku-hartzeren batean parte hartzen dute, hau da, 11.904 pertsonak, eta %93k, berriz, substantzia horiek prebenitzeko programa ez-espezifikoetan, 171.073 pertsonak. Antzeko zerbait gertatzen da alkoholaren, tabakoaren eta kalamuaren prebentzio-proiektu espezifikoen ehunekoarekin; prebentzio unibertsal eta selektiboko 185 proiektuen %5 dira. Oro har, ondoriozta daitezke alkoholaren, tabakoaren eta kalamuaren abordatze espezifikoaren pisua ez dela inola ere guztizkoaren %10era iristen Planaren indarraldian.

Esku hartzeko eredu bat garatzea drogen kontsumoa eta bestelako adikzioak murrizteko tokiko mailan. Eredu horrek komunitateari eta hiri-inguruneko determinatzaileei buruzko informazio fidagarria izango du.

Toki-mailan udalekin eta mankomunitateekin koordinatuta garatzen den esku-hartze ereduak bi mekanismoren bidez gauzatzen da: Osasun Sailaren laguntzen aginduaren eta Eusko Jaurlaritzak prebentzio-zerbitzuak zuzenean kontratatzearen bidez.

- a) Laguntzen aginduaren bidez, talde teknikoek sortzea eta mantentzea eta toki-erakundeek programen garatzea bultzatzen da.

Hurrengo taulan ikus daitezkeen bezala, **adikzioen tokiko plana duten toki-erakundeetako lantalde teknikoak sortzeko eta mantentzeko** laguntzen ildoaren barruan, 33 eta 36 udalek eta mankomunitateek parte hartzen dute urtero. Eskatzaileen kopuru txikiena 2020koa bada ere, ez dirudi COVID-19aren pandemiak nabarmen aldatu duenik laguntza-ildo horretan prebentzio komunitarioko taldeen konkurrentzia.

Prebentzio komunitarioko talde teknikoak sortzeko eta mantentzeko Eusko Jaurlaritzaren laguntzetan parte hartzen duten toki-erakundeek kopurua.

	2017		2018		2019		2020	
	Talde teknikoek kop.	Emandako munta	Talde teknikoek kop.	Emandako munta	Talde teknikoek kop.	Emandako munta	Talde teknikoek kop.	Emandako munta
Araba	4	198.280	4	191.322	4	177.383	3	175.078
Bizkaia	19	666.489	20	652.532	20	687.001	20	687.260
Gipuzkoa	11	309.366	12	330.281	10	309.751	10	311.797
Guztira	34	1.174.135	36	1.174.135	34	1.174.135	33	1.174.135

Adikzioen prebentzio komunitariorako eta ohitura osasungarriak sustatzeko programak garatzeko laguntzen atalean, 43-45 tokiko erakundeek eskatu ohi dituzte laguntzak. Hala ere, 2020an 39 eskaera erregistratu dira, pandemiak udal-programen eta -proiektuen garapenean izandako eraginez, ziurrenik. Antza denez, COVID-19ak eragindako ondorioak eta murrizketak direla eta, tokiko erakunde batzuek ez dituzte horrelako prebentzio-programak garatu toki-eremuan.

Eusko Jaurlaritzak komunitate-prebentziorako programak garatzeko ematen dituen laguntzak eskuratzeko lehiatzen diren toki-erakundeen kopurua.

	2017		2018		2019		2020	
	Toki-erakundeen kop.	Emandako munta	Toki-erakundeen kop.	Emandako munta	Toki-erakundeen kop.	Emandako munta	Toki-erakundeen kop.	Emandako munta
Araba	3	53.413	3	52.327	3	54.552	2	57.683
Bizkaia	23	296.458	22	273.376	22	279.678	21	289.600
Gipuzkoa	18	211.895	20	236.062	18	227.535	16	214.482
Guztira	44	561.765	45	561.765	43	561.765	39	561.765

b) Hainbat prebentzio-zerbitzu ematea, Eusko Jaurlaritzak zuzenean kontratatuta.

Eusko Jaurlaritzak gazteentzako hainbat programa atera ditu lehiaketara, adikzioen prebentzioa sustatzeko eta bultzatzeko, batez ere hezkuntzan, festetan eta aisialdian. Komunitate-eremuan ere hainbat sentsibilizazio-kanpaina egin dira herritar guztientzat, oro har.

	Kontratuen kop.	Munta
2017	13	409.686
2018	13	437.681
2019	11	396.083
2020	9	174.690
Guztira	46	1.418.140

COVID-19aren eragina dela eta, ezinezkoa izan da ezinbestean aurrez aurre gauzatu beharreko arriskuak prebenitzeko eta murrizteko programak garatzea. Horrelako proiektuek nekez izan dezakete online bertsiorik, eta programaren hartzaileak biltzen diren lekuan egiteko diseinatuta daude, hala nola kaleko espazio komunitarioan, jai- eta aisialdi-eremuan edo gazteen aisialdirako lonjetan.


2. ARDATZA: ESKAINTZAREN MURRIZKETA

Salaketa-kopurua lurraldeen arabera, sektoreen arabera, salatzaileen arabera eta arau-hauste motaren arabera.

Apirilaren 7ko 1/2016 Legeak, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoak, honako erakunde hauen artean banatzen ditu ikuskaritza- eta zehapen-eskumenak, zehapen-motaren eta bakoitzaren graduazioaren arabera: alkatetzak, Eusko Jaurlaritzan adikzioen arloan eskuduna den saila, Gobernu Kontseilua eta Eusko Jaurlaritzan gizarte-arloan eta osasun-arloan eskudunak diren sailak. Horregatik, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak tabakoaren arloko arau-hauste larrietan eta edari alkoholduen sustapenaren eta publizitatearen arloan bakarrik du eskumena, eta prozedura horiei buruzko informazioa baino ez du. Datu horiek oinarri hartuta, tabakoari buruzko ondorio hauek atera dira:

Salaketak lurraldeen arabera: 2016. urtean, orduan sartu baitzen indarrean apirilaren 7ko 1/2016 Legea, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa, salaketa-kopuru handiagoa erregistratu zen. Harrezkero, salaketen kopuruak behera egin du, eta 2019an Bizkaian apur bat gora egin arren, 2020an behera egin dute berriro.

	2016	2017	2018	2019	2020
Araba	56	31	42	41	26
Bizkaia	153	124	104	128	100
Gipuzkoa	59	28	46	43	35
Guztira	268	183	192	212	162



Salaketak sektoreen arabera: ostalaritza da 2016tik 2020ra arteko aldian salaketa-kopuru handiena izan duen sektorea, eta, horren ostean, joko-establezimenduak.

Salaketak sektoreen arabera

	2016	2017	2018	2019	2020	Guztira
Ostalaritza	176	125	129	114	120	660
Gizarte-/Kultur-/Jolas-zentroa	5	1	4	1	0	11
Lantokia	6	2	0	0	0	8
Garraibidea/Garraio publikoa	0	0	2	3	2	7
Kirol-zentroa/Ikuskizun publikoa	11	6	20	6	4	47
Merkataritza-gunea/Saltoki-gunea/Saltokia	6	7	12	23	17	65
Osasun-zentroa	0	0	1	0	0	1
Zerbitzugunea	0	1	0	0	0	1
Haurrentzako parkea	1	1	0	0	0	2
Joko-establezimenduak	61	38	24	62	13	198
Jabekideen erkidegoak	2	2	0	0	2	6
Ikastetxea	0	0	0	2	1	3
Erakunde publikoa	0	0	0	0	0	0
Aireportua	0	0	0	0	3	3
Bide publikoa	0	0	0	1	0	1

Salaketak salatzaileen arabera: salaketa gehienak udaltzaingoetatik datoz eta, gero, Ertzaintzak jarritakoak daude. Partikularrei dagozkienak pixkanaka murriztuz joan dira urtez urte.


Salaketak salatzaileen arabera

	2016	2017	2018	2019	2020	Guztira
Ertzaintza	106	49	87	93	41	376
Udaltzaingoa	114	96	74	78	111	473
Partikularra	31	27	22	25	8	113
Guardia Zibila	16	0	9	16	2	43
Osasun Publikoko ikuskaria eta ofizioz	0	11	0	0	0	11
Jabekideen erkidegoak	1	0	0	0	0	1

Salaketak arau-hauste motaren arabera: emandako datuak Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzan erregistratu diren salaketei buruzkoak dira. Erregistratutako salaketetatik, gehienak erretzea baimenduta ez dagoen establezimendu eta tokietan erretzen uztearen ondorioz jarri dira.

Salaketak arau-hauste motaren arabera

	2016	2017	2018	2019	2020	Guztira
Tabakoaren/NADG-en salmenta	15	11	13	19	21	79
Erretzen uztea	142	127	112	125	96	602
Erretzea	106	44	67	65	45	327
Seinaleak falta dira	5	1	0	3	0	9
Publizitatea/Sustapena	0	0	0	0	0	0



Beste esku-hartze batzuk:

- Tabakoari dagokionez:
 - Erretzearen ondoriozko arau-hausteengatiko salaketei dagozkien udalerrietako alkateei egindako komunikazioak, organo horiei dagokielako tabakoaren arloko arau-hauste arinengatiko zehapenak jartzea.

2016	2017	2018	2019	2020
45	44	67	65	45

- Salatutako erakundeei edo pertsoneri zuzendutako informazio-jarduketak, tabakoaren arloko kasu zehatzari aplikatu beharreko arauak buruzkoak.

2016	2017	2018	2019	2020
25	19	10	12	17

– Edari alkoholdunei dagokienez:

- Edari alkoholdunen arloko arau-hauste arinengatiko eta astunengatiko (edari alkoholdunak kontsumitu eta saltzeagatiko) salaketei dagozkien udalerrietako alkateei egindako komunikazioak, organo horiei dagokielako zehatzeko eskumena. 2016. urtean ez zen informazio hori biltzen.

2017	2018	2019	2020
26	6	0	3

- Edari alkoholdunen publizitate ez-zilegiari buruzko ofiziozko jarduketak, Eusko Jaurlaritzan adikzioen arloan eskuduna den organoari dagokielako edari alkoholdunei buruzko sustapenarekin eta publizitatearekin zerikusia duten arau-hausteengatiko zehapenak jartzea. 2016. urtean ez zen informazio hori biltzen.


2017	2018	2019	2020
1	1	0	0

Zehapen-kopurua salaketa-kopuruari dagokionez.

Apirilaren 7ko 1/2016 Legea, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa, 2016ko apirilaren 14an sartu zen indarrean. 95. artikuluan zehatzeko eskumena ezartzen da. Tabakoaren arloko arau-hauste astunei (erretzen uzteari eta tabakoa saltzeari) dagozkien zehapenak direla-eta, haien gaineko eskumena Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari baitagokio, 347 zehapen-espeditente amaitu dira 2020 arte jasotako 681 salaketetatik.

Erretzen uzteagatik edo tabakoa saltzeagatik ezarritako zehapenak

	2016	2017	2018	2019	2020	Guztira
Araba	20	7	11	17	3	58
Bizkaia	65	47	41	40	36	229
Gipuzkoa	17	11	10	17	5	60



Zehapenen ordezeko neurrien kopurua.

Zehapenen ordezeko neurriak

	Ordezko neurrien kopurua
2017	25
2018	62
2019	137
2020	152

Oharra: informazio hori udalek jasotako datuetatik ateratzen da.

2018az geroztik, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legea garatzeko dekretu bat lantzen ari dira. Dekretu horren xedea da apirilaren 7ko 1/2016 Legearen 93. artikuluan aurreikusitako ordezeko neurriak arautzea. 2019an eta 2020an, dekretua aztertu eta analizatzeko aurretiazko fasea garatu da.

Akordioak edo kanpainak aisialdi, merkataritza eta ostalaritzako enpresa-erakundeekin.

2020an, eten egin dira aisialdi- eta ostalaritza-eremuari lotutako horrelako ekimenak, COVID-19aren pandemiaren eraginez. Erabaki hori hartzeko, toki-erakundeetako prebentzio-taldeekin jarri gara harremanetan, eta esan digute adingabeekin harremanetan lan egiten duten profesionalak, hala nola ostalaritzako eta txosnetako langileek, aisialdiko begiraleek edo jai-batzordeetako kideek, egokiagoa ikusten dutela esku-hartze horiek eta prestakuntza- eta kontzientziazio-tailerrak aldi baterako etetea.

- Alkohol-kontsumoaz sentsibilizatzeko kanpaina, ZAINDU, adikzioei buruzko tokiko plana duten toki-erakundeekin koordinatuta.

ZAINDU kanpainen parte hartu duten tokiko erakundeak

	2017	2018	2019	2020	Lurralde historikoko guztizkoa
Araba	3	3	5	0	11
Bizkaia	14	10	13	0	37
Gipuzkoa	5	8	7	0	20
Guztira	22	21	25	0	68

Oharra: 3 erakunde Arabako 3 kuadrillari dagozkie, eta horien adikzio-plana Arabako Foru Aldundiarena da.

- Adingabeekin harremanetan lan egiten duten profesionalak prestatzeko eta sentsibilizatzeko programa; ostalaritzako, txosnetako eta jai-batzordeetako langileek parte hartzen dute. Helburua da alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoarekin lotutako arriskuak murrizten trebatzea, drogen kontsumoarekin lotutako egoerei aurre egiteko baliabideak eskuratzea eta, gainera, prebentzio-mezu bat transmititu ahal izatea. Adierazi bezala, 2020an ez da halakorik egin ia.

Tailer-kopurua lurralde historikoen arabera

	2017	2018	2019	2020	Guztira
Araba	3	3	4	0	10
Bizkaia	13	18	13	0	44
Gipuzkoa	6	7	15	2	30
Guztira	22	28	32	2	82

- Kartelak banatzeko kanpaina, edari alkoholduen, tabako-produktuen eta nikotina aska dezaketen gailuen seinaleztapenari buruzko azaroaren 26ko 187/2019 Dekretuaren esparruan.

3. ARDATZA: OSASUN-LAGUNTZA, LAGUNTZA SOZIOSANITARIOA ETA GIZARTERATZEA

Adikzio-arazoak dituen eta bazterketa-egoeran dagoen pertsona-kopurua, arreta integrala sustatzen duten baliabideetan arreta jasotzen duena.

Adikzio-arazoak dituen eta bazterketa-egoeran dagoen pertsona-kopurua, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarekin adostutako baliabideetan arreta jasotzen duena

	2017		2018		2019		2020			Guztira		
	G	E	G	E	G	E	G	E	TRANS	G	E	TRANS
Eskakizun txikiko eta arreta eta larrialdi soziosanitarioko eguneko baliabidea gizarte bazterketa egoeran dauden droga-mendekoentzat	396	88	347	80	365	77	329	62	2	1437	307	2
Bilbon adikzioei arreta emateko zentro soziosanitarioa. "Anden 1"	358	74	344	68	337	57	274	58	0	1.313	257	0
"HONTZA" gaueko larrialdi- eta harrera-zentroa	464	163	575	155	532	127	382	87	0	1.953	532	0
GUZTIRA	1.208	325	1.266	303	1.234	261	985	207	2	4.703	1.096	2

Toxikomaniei buruzko informazio-sistemak (TIS), Eusko Jaurlaritzako Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak eginak, hiru adierazle hauetan oinarrituta jasotzen ditu datuak: tratamenduaren adierazlea, larrialdien adierazlea eta hilkortasunaren adierazlea. Tratamenduaren adierazleak honako hauei buruzko informazioa biltzen du: toxikomaniak tratatzeko Euskadiko zentroetan (Osakidetzan, zentro itundu edo pribatuetan) substantzia psikoaktiboekiko mendekotasun edo abusuagatik tratamendua hasi duten pertsonak.

Onartuen kopurua, substantziaren arabera. 2019.

Substantzia nagusia	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Alkohola	795	321	1.116
Kokaina klorhidratoa (hautsa)	419	43	462
Kalamua (zehaztu gabe)	354	57	411
Heroina (diazetilmorfina edo diamorfina)	144	25	169
Anfetaminak, zehaztu gabe	93	32	125
Oinarrizko kokaina (crack)	50	4	54
Landarea, kalamu belarra, marihuana	21	7	28
Alkohola + kokaina	17	4	21
Heroina + kokaina, zehaztu gabe (nahasketa)	18	3	21
Kalamu-erretxina, haxixa	14	3	17
NSZren estimulatzaileak, zehaztu gabe	19	3	22
Anfetamina sulfatoa	19	4	23
Ketamina	24	4	28
Opioideak zehaztu gabe	9	9	18
Zehaztu gabeko kokaina	7	0	7
Benzodiazepinak zehaztu gabe	10	3	13
Hipnotikoak eta lasaigarriak, zehaztu gabe	7	1	8
Metadona	4	1	5
Zehaztu gabeko substantzia psikoaktiboa	3	0	3
Alprazolama	2	2	4
Tetrahidrocannabinola (THC, dronabinola)	4	2	6
Substantzia lurrunkorrek (ukiezinak), zehaztu gabe	1	0	1
Kodeina (metilmorfina)	0	1	1
Klonazepama	1	0	1
Heroina + oinarrizko kokaina (nahasketa)	0	0	0
Morfina	1	0	1
MDMA (3,4-metilendioxi-metanfetamina)(Estasia, Adan)	1	0	1
Lorazepama	1	0	1
Kokaina (koka pasta)	1	0	1
Kafeina	0	0	0
Heroina + kokaina klorhidratoa (nahasketa)	1	0	1
Mefedrona	1	0	1
Estasisa eta zehaztu gabeko deribatuak	1	0	1
Opioa	1	0	1

Iturria: Toxikomaniei buruzko informazio-sistema. Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. Ez dago 2020an erregistratutako daturik.

Tratamendua hasi duten pertsonen kopurua, ikasketen arabera. 2019.

Ikasketa maila	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Ez daki ez irakurtzen ez idazten	12	1	13
Ez du Derrigorrezko Lehen Hezkuntza amaitu	237	48	285
Derrigorrezko Lehen Hezkuntza amaitu du	652	128	780
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu du	357	101	458
Batxilergoa edo erdi mailako heziketa ziklo bat amaitu du	468	134	602
Goi mailako ikasketak amaitu ditu	148	69	217
Ezezaguna	169	48	217
GUZTIRA	2.043	529	2.572

Iturria: Tokikomaniei buruzko informazio-sistema. Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. Ez dago 2020an erregistratutako daturik.

Tratamendua hasi duten pertsonen kopurua, lan-egoeraren arabera. 2019.

Lan-egoera	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Lan-harreman mugagabea edo autonomia	603	120	723
Aldi baterako lan-harremana	225	62	287
Soldatarik gabe. Familiarentzako lanean	7	5	12
Langabea, aurretik lanik egin gabea	114	28	142
Langabea, aurretik lana eginda	642	192	834
Ezintasun iraunkorra duena, pentsioduna	229	56	285
Ikasten edo oposizioak egiten	93	18	111
Soilik etxeko lanak egiten	2	18	20
Beste egoera batean	85	15	100
Ezezaguna	43	15	58
GUZTIRA	2.043	529	2.572

Iturria: Tokikomaniei buruzko informazio-sistema. Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. Ez dago 2020an erregistratutako daturik.

Adikzio-arazoak dituzten emakumeei zuzendutako esku-hartze espezifikoaren kopurua.

	2017	2018	2019	2020
Adikzio-arazoak dituzten emakumeei zuzendutako hirugarren sektoreko erakundearen proiektuen kopurua.	2	4	2	2
Adikzio-arazoak dituzten emakumeei zuzendutako toki-erakundearen proiektuen kopurua.	1	0	0	0

Toxikomaniengatik tratamendua jasotzeko onartutako kopurua, guztira. 2019.

Gizonak	2.043
Emakumeak	529
GUZTIRA	2.572

Iturria: Tokikomaniei buruzko informazio-sistema. Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. Ez dago 2020an erregistratutako daturik.

Osakidetzak egindako esku-hartzeen kopurua tabakoa erretzeko ohitura uzteari dagokionez (esku-hartze laburra, intentsiboa, motibaziozko laguntza, tratamendu farmakologikoa).

Tabakoa erretzeko ohitura uzteko eskaintza Osakidetzako lehen mailako arretako kontsultetan ematen da. Zerbitzua erabiltzen duten gehienak emakumeak dira, nahiz eta tabakismoaren prebalentzia emakumeengan gizonengan baino baxuagoa izan.

	Taldekoa			Banakakoa		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
2017	543	372	915	1.076	989	2.065
2018	306	218	524	944	915	1.859
2019	427	253	680	1.040	1.019	2.059
2020	324	282	606	3.983	3.837	7.820

Iturria: Osakidetza.

Substantziarik gabeko adikzioen inguruko programa espezifikoaren kopurua.

Hirugarren sektoreak garatutako proiektuak eta toki-erakundearen prebentzio komunitarioko programak bultzatzen dituen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren laguntzen aginduaren bidez, substantziarik gabeko adikzioak berariaz lantzen dituzten proiektu hauek finantzatu dira.

	Toki-erakundearen prebentzio komunitarioko programak			Arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko hirugarren sektoreko erakundearen proiektuak				
	Erakunde kopurua	Proiektu/programa kopurua	Hartzaile-kopurua	Erakunde kopurua	Proiektu/programa kopurua	Hartzaile-kopurua		
2017	0	0	0	6	8	3.794		
2018	0	0	0	8	11	6.230		
2019	9	9	4.442		7	12	10.716	
			G	E			G	E
			2.170	2.272			5.605	5.111
2020	3	4	179		11	14	6.859	
			G	E			G	E
			63	116			3.701	3.158
Guztira	12	13	4.621		32	45	27.599	

2020an, tokiko erakundeek eta hirugarren sektoreko erakundeek substantziarik gabeko adikzioak prebenitzeko 18 proiektu aurkeztu dituzte guztira, GKE-ek eta tokiko erakundeek aurkeztutako 234 proiektuen %8. Proiektu horiek balioetan oinarritutako hezkuntza eta substantziadun eta substantziarik gabeko adikzioen prebentzioa lantzen dituzte elkarrekin. Plana indarrean dagoenetik, 32.220 parte-hartzaile izan dira jokabide-adikzioetarako programa edo proiektu eskusiboetan.

4. ARDATZA. EZAGUTZAREN, PRESTAKUNTZAREN ETA EBALUAZIOAREN KUDEAKETA

Adikzioen gaian Osasun Sailak emandako laguntzen ebaluazioa sendotzea, genero- eta geografia-ekitatearen ikuspuntutik, baita hezkuntzaren arlokoetan ere hornidura-motaren arabera (publikoa, itundua edo pribatua).

2020an, emandako laguntzak ebaluatzeko 2018an abian jarritako aplikazioa hobetzen eta egokitzen jarraitu da. Zuzendu egin dira erakundeek emandako datuak modu zehatzagoan ustiatzeko identifikatutako mugak, honako aldagai hauetan oinarrituta: generoa, lurralde historikoa, eremua, prebentzioari eta tratamenduari heltzeko modua. Horri esker, egindako ekintzen azterketa zehatza eta osoa egin ahal izan da. Lan horren ondorioz, 2020an toki-erakundeen 162 proiekturen eta hirugarren sektoreko 72 proiekturen emaitzen irismenari buruzko datuak ustiatu ziren.

Substantziek eragindako eta substantziarik gabeko adikzioen eremuko ezagutza hobetzeko gauzatutako ikerketa-kopurua areagotzea (kuantitatiboak, kualitatiboak edo ikerketa-ekintza), ekitatearen ikuspuntutik. Abiapuntua: 2017.

Adikzioen arloko ikerketak Eusko Jaurlaritzako Adikzioen Zerbitzuak berak eta horren erakunde kolaboratzaileek egiten dituzte, SIISek (Euskal Autonomia Erkidegoko Droga Mendekotasunen Dokumentazio Zentroa), Droga-menpekotasunen Deustuko Institutuak, Kriminologiaren Euskal Institutuak eta Euskal Herriko Unibertsitateak, besteak beste.

Ikerketa-kopurua

2017	2018	2019	2020
6	7	9	6

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari lotutako erakundeen prestakuntza-ekintzen kopuruaren egonkortasuna. Abiapuntua: 2017.

Prestakuntza-ekintzak SIISek (Euskal Autonomia Erkidegoko Droga Mendekotasunen Dokumentazio Zentroak) eta Droga-menpekotasunen Deustuko Institutuak egiten dituzte, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarekin sinatutako hitzarmenen esparruan. Gainera, 2020an, Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko kontratazioaren bidez eta pandemiaren ondorioz, online prestakuntza-tailer batzuk egin dira adikzioen arloko profesionalentzat.

	Prestakuntza-jarduera	Ikasle-kopurua		Jardueraren orduak
2017	7	342		71
2018	6	157		56
2019	7	325		112
		G	E	
		53	272	
2020	13	386		73
		G	E	
		63	320	

Droga Mendekotasunen Euskal Behatokiaren webgunea eta Adikzioen Zerbitzuaren webguneko gainerako atalak berriz diseinatu eta eguneratzea.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren Adikzioen egungo webguneak 5 atal espezifiko ditu, gainerako arloetako atal komunez gain. Atal horiek honako hauek dira: Droga eta adikzioei buruz; GABIA: Adikzioen behatokia; Programak, planak eta bestelako ekimenak; Laguntza bilatzen ari zara?; eta Profesionalak prestatzeko eta sentsibilizatzeko programa.

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/mendekotasunak/hasiera/>

2020an, Gabia Behatokiaren atalean, Osasun Saileko Adikzioen Zerbitzuak egindako azterlanak eta txostenak argitaratu dira, bai eta beste autonomia erkidego batzuek -Drogei buruzko Plan Nazionalak- edo Drogen Europako Behatokiak (EMCDA) bezalako estatuz kanpoko beste erakunde batzuek argitaratutako dokumentuak ere. Gainera, jardunbide egokien atalean sartu da adikzioen arloko jardunbide onenak aitortzeko prozesua, eta etengabe eguneratu da Drogomedia Dokumentazio Zentroa.

2020an, Gabia-Droga Mendekotasunen Euskal Behatokian erregistratutako bisiten kopurua zertxobait jaitsi da 2019arekin alderatuta.

Kanpoko bisiten erregistroa Gabia-Droga Mendekotasunen Euskal Behatokian

	2017	2018	2019	2020
Euskadiko adikzioei buruzko inkesta	45	651	1.791	1.264
Jardunbide egokiak	85	232	191	178
Alerta-sistemak	65	268	176	124
Argitalpen teknikoak	50	295	455	346
Adikzioen eta droga-mendekotasunen baliabideak	15	1.499	1.620	1.470

Adikzioen web-orrian, jokaerazko adikzioen atalak izan du bisita-kopuru igoera handiena 2020an.

Kanpoko bisiten erregistroa adikzioen webguneko beste zerbitzu batzuetan

	2018	2019	2020
Adikzioen hasierako orria	10.363	9.290	6.809
Droga eta adikzioei buruz: Jokaerazko adikzioak	6.170	11.711	17.869
Adikzioei buruzko Euskadiko VII. Plana	3.495	1.573	1.385
Non bilatu laguntza?	1.811	3.003	2.772
Kerik gabeko gazteak	1.764	1.980	1.365
Droga eta adikzioei buruz: Anfetamina	1.789	3.913	7.616
Droga eta adikzioei buruz: Kokaina	1.304	3.886	9.060
Droga eta adikzioei buruz: Lsd-a	-	10.007	22.046

Oharra: 2018an ez ziren Lsd-ari buruzko bisiten erregistroak kontatu.

Drogomedian erregistratutako datuei dagokienez, 2020an gorantz jarraitu du bisita-kopuruen igoerak.

Drogomediako bisiten erregistroa

2017	2018	2019	2020
24.493	31.265	58.939	59.000

5. ARDATZA. LIDERGOA ETA KOORDINAZIOA

Prozesuaren adierazleak

Bilera-kopurua adikzioen arloko araudia betetzen eta planak garatzen inplikatur dauden agenteekin.

Bilera-kopurua

2017	37
2018	59
2019	78
2020	38

Adikzioen Euskal Kontseiluaren eta Adikzioen Institutio arteko Batzordearen saio-kopurua.

	Adikzioen Institutio arteko Batzordea	Adikzioen Euskal Kontseilua
2017	2	1
2018	0	0
2019	1	1
2020	0	0

COVID-19ak sortutako egoerak eragina izan du 2020an egindako bileren eta topaketen kopuruaren jaitsieran.

2020ko ekintzak

1. ARDATZA: Adikzioen prebentzioa eta osasunaren sustapena

HELBURU OROKORRA: Osasunaren sustapena bultzatzea, pertsonak gaitzeko beraien osasuna baldintzatzen duten elementuen gainean kontrol handiagoa izan dezaten, substantzien eskaria murrizten eta adikziorik gabeko bizona eramaten lagunduko duten inguruak garatuz eta trebeziak eskuratuz. Eta, aldi berean, babeserako faktoreak indartzea, adikzioen eragina eta prebalentzia murriztea eta horien aurrekari diren arrisku-faktoreak eta jokabideak gutxitzea.

1.1 helburua. Osasunaren sustapena eta prebentzio unibertsala bultzatzea adikzioen eredu bio-psiko-sozialetik eta komunitatearen ikuspegitik, sektoreen arteko lana, erakundeen arteko koordinazioa eta hirugarren sektorearekin eta beste eragile batzuekin izan beharreko lankidetzak bultzatuz.

Ekintzak:

1.1.1 Osasuna baldintzatzen duten gizarte-alarreko elementuen eta osasun-alarreko ekitatearen ikuspegia sartzea adikzioen alorrean lan egiten duten gizarteko eta erakundeetako zenbait sektoreekin gauzatutako esku-hartzeetan.

- Eusko Jaurlaritzako Adikzioen Zerbitzuak modu sistematikoan sartzen ditu osasuna baldintzatzen duten gizarte-elementuak bai beraren partaidetzaz bultzatzen diren bai kanpoan egikaritzen diren azterketa eta lanetan. Horrela, honako hauek kontuan hartzeko irizpideak txertatzen dira: auzoen maila sozioekonomikoa, gizonen eta emakumeen partaidetza haien beharren arabera, adin-taldeak beraien ezaugarriekin eta bai hirien bai herrien ordezkariak. Unibertsalismo proportzionalaren printzipioa aplikatzen da; horren arabera, biztanle guztientzat eskuragarri dauden ekimen unibertsalak abian jartzen dira eta urrakortasun-egoeran dauden biztanle-taldeetan arreta berezia jartzen da.

- 2020an, COVID-19aren pandemiaren ondorioz, **COVID-19aren inpaktua eta ondorioak adikzioen eremuan, Euskadin** azterlana egin zen, larrialdi-egoerari azkar erantzuteko. Adikzioak dituzten pertsonak artatzen dituzten erakundeetako profesionalen eta adikzioen prebentzio komunitarioko udal-taldearen pertzepzioa izan zen azterlanaren ardatza. Profesional horiek hasieratik sartu ziren, azterlanaren diseinuan parte har zezaten. 2021ean osatuko da adikzio-arazoak dituzten Euskadiko pertsonen pertzepzioarekin osatuko da azterlana.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_gabia/eu_def/adjuntos/Impacto-Covid-19-Adicciones-Informe-Completo.pdf

- Psikofarmakoen kontsumoa da sistematikoki emakumeen artean gizonen artean baino prebalentzia handiagoa duen bakarra (adin guztietan). 2020an, **Emakumeei eta Psikofarmakoei buruzko** symposium bat egin zen, Droga-menpekotasunen Deustuko Institutuak antolatuta.

1.1.2 Komunitatearen partaidetza sustatzea tokiko sareetan, osasuna eta ongizatea sortzen dituzten eta adikziozko jokabideak saihesten laguntzen duten faktoreak identifikatzeko, arreta berezia jarriz urrakortasun-egoeran dauden gizarteko taldeetan.

- 2020an, Osasun Saileko Adikzioen Zerbitzuak Uribe Kostako Osasun Komunitarioko Tokiko Sarearekin lanean jarraitu zuen, **eskola-eremuan berdinen arteko prebentzio** esku-hartze bat

egiteko, **kalamuaren kontsumoan oinarrituta**. Tailerrak martxoan eten ziren, alarma egoeratik, eta urrian berriro hasi. Amaitutakoan, esku-hartzearen eraginkortasuna ebaluatuko da, eta ohiko tailerrekin alderatuko da, berdinen arteko prebentzio-osagaia gabe.

- 2020an eta pandemia-egoera dela eta, ez da egin urtero izaten den **Osasuna eta osasun komunitarioa sustatzeko jardunaldia**.

1.1.3 Osasunaren sustapenerako eta adikzioen prebentzio unibertsalerako programak eta jarduketak bultzatzen jarraitzea familiako, eskolako, aisiako, komunitateko eta laneko eremuetan. Hauek, hain zuzen ere:

- Hezkuntza-komunitateari zuzendutako osasunaren sustapenerako eta adikzioen prebentzio unibertsalerako baliabide didaktikoak eta tresna bereziak sortzea.
- Osasunaren sustapenerako eta adikzioen prebentzio unibertsalerako baliabide didaktikoak eta tresna bereziak prestatzea, hezkuntza ez arautuan eta ez formalean erabiltzeko.
- Adingabeei eta gazteei jokabide osasungarriak eskuratzen lagunduko dieten gaitasunak, trebeziak eta tresnak emango dizkieten jarduketak bultzatzea.
- Gazteei zuzendutako aisia alternatibo eta osasungarrirako ekimenen garapena sustatzea (eskola orduetatik kanpo).
- Jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko dagoeneko martxan dauden programak bultzatzea.
- Osasunaren sustapenerako eta adikzioen prebentziorako programak bultzatzea lan-eremuan, horretarako Osalanekin elkarlanean arituz. Horretarako, lan-eremuan droga-mendekotasunei eta adikzioei buruzko programak, akordioak eta jarduketa-programak garatuko dira, horien eraginak murrizteko helburuarekin.

- **Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren laguntzei buruzko agindua**. Hirugarren sektoreko erakundeei eta tokiko erakundeei, udalei eta mankomunitateei zuzenduta dago, adikzioen arriskuak prebenitzeko eta murrizteko, eta osasuna sustatzeko proiektuak garatzeko, bai eta adikzioen prebentzio komunitarioko taldeak mantentzeko ere.

2020rako guztizko aurrekontua: 2.854.400 €.

Elkarrekin Podemos legebiltzar-taldeak aurkeztutako eta 2020rako EAEko Aurrekontu Orokorrei buruzko 13/2919 Legean onartutako 23. zuzenketarekin bat etorritik, hirugarren sektoreko erakundeen arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko proiektuak finantzatzeko zenbatekoa 236.000 euro handituko da, "Euskadin ausazko jokoarekiko eta substantziarik gabeko beste adikzio batzuekiko adikzioa prebenitzea eta tratatzea" helburu duten proiektuak diruz laguntzeko.

Laguntza-ildo bakoitzerako zenbatekoen banaketa 2017tik 2020ra

Urtea	Talde teknikoaren mantentzea		Toki-erakundearen prebentzio komunitarioko proiektuak		Arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko hirugarren sektoreko erakundearen proiektuak		Guztira
	Erakunde kopurua	Aurrekontua	Proiektu kopurua	Aurrekontua	Proiektu kopurua	Aurrekontua	
2017	34	1.174.135	328	561.765	65	882.500	2.618.400
2018	36	1.174.135	179	561.765	72	882.500	2.618.400
2019	34	1.174.135	179	561.765	67	882.500	2.618.400
2020	34	1.174.135	162	561.765	72	1.118.500	2.854.400

Agindua 2020ko ekainaren 15ean argitaratu zen.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2020/06/2002323e.pdf>

Emandako diru-laguntzak argitaratzeko ebazpena 2021eko maiatzaren 11n argitaratu zen.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2021/05/2102644e.pdf>

Toki-erakundearen eta hirugarren sektorearen 2020ko proiektuak lurralde historikoen arabera

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Proiektuak guztira
	Proiektu kopurua	Proiektu kopurua	Proiektu kopurua	
Toki-erakundeak	81	71	11	162
Hirugarren sektorea	44	15	13	72

- Hirugarren sektoreko erakundeek arriskuak eta kalteak murrizteko 72 proiektu gauzatu dituzte 2020an, Eusko Jaurlaritzarekin koordinatuta. Horietatik 16 prebentzio unibertsalekoak dira.

Hirugarren sektoreko erakundearen prebentzio unibertsaleko 2020ko proiektuak


Proiektu kopurua	ESKOLA			FAMILIA			KOMUNITATEA		
	Gizonak	Emak.	Guztira	Gizonak	Emak.	Guztira	Gizonak	Emak.	Guztira
	13			1			2		
Parte-hartzaileen kopurua	24.745	25.330	50.075	79	315	394	20	26	46

- Gainera, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, toki-erakundeek prebentzio unibertsaleko 95 proiektu garatzen dituzte, eta 63.545 pertsonak parte hartzen dute proiektu horietan. Azpimarratzekoa da toki-erakundeek egindako prebentzio unibertsaleko proiektu guztietatik gehienak hezkuntza-eremuan garatzen direla, 42 proiektu guztira, eta 17.803 mutilek eta 17.037 neskek parte hartzen dutela.

Toki-erakundeen prebentzio unibertsaleko 2020ko proiektuak

Proiektu kopurua	ESKOLA			FAMILIA			KOMUNITATEA		
	42			28			25		
Parte-hartzaileen kopurua	Gizonak	Emak.	Guztira	Gizonak	Emak.	Guztira	Gizonak	Emak.	Guztira
		26.615	26.266	52.881	1.522	4.602	6.124	2.414	2.126

- Eskola eremuan alkohol-kontsumoa prebenitzeko ICEBERG programa, DBHko ikasleei zuzendua, emozioen kudeaketan eta asertibitatearen garapenean oinarritzen dena. Hiru zutabetan egituratzen da: substantzia, ingurunea eta pertsona. 2020an, 4 udaletako 6 ikastetxetan egin da, eta 460 mutilek eta 483 neskek parte hartu dute.



https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/adicciones_alcohol_programas/eu_def/adjuntos/Aurkezpena%20eta%20justifikazioa.pdf

- Arriskuak prebenitzeko eta murrizteko programa, alkohol-kontsumoari buruzkoa, DBHko 4. mailako, Batxilergoko eta heziketa-zikloetako ikasleei zuzendua, Eusko Jaurlaritzak zuzenean finantzatua eta toki-erakundeek sustatua.

	Tailer kopurua	Ikastetxe kopurua	Parte hartu duten ikasleen kopurua	Herri kopurua
2017	268	98	4.735	53
2018	277	96	5.100	46
2019	255	87	4.844	52
2020	224	75	4.331	35

- Eskola-inguruneke alkohol-kontsumoaren arte eszenikoen bidezko prebentzioa (Mimarte antzerki proiektua).

	Antzezpen kopurua	Herri kopurua	Parte-hartzaileen kopurua	
2017	36	27	2.238	
2018	40	23	2.300	
2019	61	27	3.709	
			G	E
			1.678	2.031
2020	4	2	310	
			G	E
			163	147

Taula horretan, Mimarte programari buruzko datuak jasotzen dira, guztira, bai Eusko Jaurlaritzak zuzenean finantzaturako antzezpenak bai toki-erakundeek bultzaturakoak. 2020an, COVID-19aren pandemiaren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak ez zuen atera lehiaketara arte eszenikoen bidezko prebentzio-zerbitzua, baina toki-erakunde batzuek programa 2020ko urtarrilean eta otsailean egin dute. Zehazki, Tolosak eta Zarautzek egin dute prebentzio-programa hori, eta 163 mutilek, 147 neskek, 8 maisuk eta 7 andereñoek hartu dute parte.



<http://www.teatromimo.com/Etdm/index.html>

- **Jai-eremuko prebentziozko esku-hartzeak**, 1.3.12 ekintzan (Testinga, alkoholimetriak eta lonjak) deskribaturakoak.
- **Banaketa arduratsua programa eta prestatzaileen prestakuntza**, ostalaritzako langileentzat eta adingabeekin lan egiten duten profesionalentzat, adibidez, astialdiko begiraleentzat eta kaleko hezitzaileentzat.

	Tailer kopurua	Herri kopurua	Profesionalen kopurua	
2017	22	23	302	
2018	28	16	335	
2019	32	15	322	
			G 148	E 174
2020	2	1	21	
			G 12	E 9

Programaren bidez, drogen kontsumoarekin lotutako egoera konplexuetan nola jokatu jakiteko trebetasunak eskuratzen dituzte parte-hartzaileek, eta, batez ere, prebentzio-mezu bat barneratu eta bere egiten dute, gero adingabeei eguneroko lanean helarazteko. Aurreko taulan ikus daitekeenez, 2020an nabarmen jaitsi da tailerrak egin dituzten profesionalen kopurua, COVID-19aren pandemiaren ondorioz.

- **Hezkuntza-arloko adikzioen prebentzio unibertsalerako online programa, Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko lehen zikloko ikasleei zuzendua.** Honako helburu hauek ditu: Adikzioen gaineko arrisku-pertzepzioa areagotzea eta babes-faktoreak indartzea, drogen kontsumoaren eta, oro har, adikzioen aurkako jarrerak bultzatzea, trebetasun eta estrategia prosozialak eskuratzea, alkohola, tabakoa eta kalamua kontsumitzen hasteko adina atzeratzeko. Programan 381 ikaslek parte hartzen dute (83, lehen hezkuntzako 6. mailakoak; eta 298, DBHko lehen ziklokoak).


- **Kerik Gabeko Gazteak** programa. "Tabako-kerik gabeko Euskadi" estrategiaren barruan, tabakoarekin lotutako hainbat alderdi lantzeko truke- eta elkarrizketa-programa bat da. Bertan Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek parte hartzen dute, hezkuntza-komunitate osoaren eta familien inplikazioarekin. Ekimen honen helburua da Euskadiko ikasleen artean tabakoa kontsumitzen hasteko adina saihestea edo atzeratzea, nerabeen artean jokabide osasungarriak garatzea eta tabako-kerik gabeko eskola-ingurunea bermatzea. 2019-2020 ikasturtean, bi unitate didaktiko berri sartu dira programan: "Tabakoa eta kutsadura" eta "Kontsumo berriak".

Programaren amaieran, lehiaketa bat antolatzen da eta ikasleek ikasturte bakoitzean proposatzen den gaiarekin zerikusia duen irudi bat egiten dute.

Pandemiaren ondorioz, lehiaketa, ezin izan dira egin sari-banaketa eta ikasle guztientzako oparimategia. Hala ere, programaren webgunea une oro egon da aktibo, eta, beraz, erabiltzen jarraitu ahal izan da.

Kerik Gabeko Gazteak

	Parte hartu duten ikasleen kopurua				Ikastetxe kopurua			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
2016-2017	1.497	2.782	1.900	6.179	18	33	26	77
2017-2018	1.946	2.787	2.549	7.282	21	31	27	79
2018-2019	1.572	2.875	2.139	6.586	12	34	30	76
2019-2020	1.151	3.045	1.667	5.863	10	37	24	71



<https://www.euskadi.eus/informazioa/kerik-gabeko-gazteak/web01-a3tabaco/eu/>

- **Kerik gabeko gazteak** – **Kerik gabeko Araba**, "Tabako-kerik Gabeko Euskadi" estrategian kokatuta, ekintza komunitarioa da, eta haren helburua da biztanleen artean eta batez ere gazteen artean bizimodu osasungarriak sustatzeko ahaleginak batzea. Honako hauek osatzen dute: Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuko eta Osakidetzako Araba eskualdeko profesionalek; Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko, Amurrioko Udaleko eta Laudioko Udaleko prebentzio komunitarioko taldeek; eta Arabako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordeak.

<https://arabasinhumo.wordpress.com/>

• **Arriskuak prebenitzeko eta murrizteko proiektuak, IKTen, sare sozialen, ausazko jokoan eta kirol-apustuen erabilerari buruzkoak**, Eusko Jaurlaritzak laguntzen aginduaren bidez finantzatuak:

- Eskola-eremuan IKTen eta sare sozialen arriskuak murrizteko tailerrak: esku-hartze zuzena ikasleekin ikasgelan, batez ere Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloetan, edo oinarrizko lanbide-heziketan. Informazio egiazkoa eta objektiboa ematen du, kontrastea eta hausnarketa orekatua sustatzeko gai dena. 1059 gizonak eta 1151 emakumek parte hartu dute. (Etorkintza Fundazioa).
- Ausazko jokoan eta kirol-apustuen erabileran arriskuak prebenitzeko tailerra eskola-eremuan: hiru saioko lan-plana ikastetxeetan, profil desberdineko 13 eta 17 urte bitarteko nerabe eta gazteentzat, inoiz jokatu edo apusturik egin ez dutenentzat eta jokoarekin eta apustuekin lotutako arrisku-portaerak izaten hasi direnentzat. Hausnarketarako eta lanerako espazio bat eskaintzen du, ikasleek erabakiak hartzerakoan erantzukizuna hartzearen garrantzia uler dezaten eta arriskuak uler ditzaten. 419 gizonak eta 364 emakumek parte hartu dute. (Etorkintza Fundazioa).
- Nerabeen joko patologikoaren prebentzio unibertsaleko proiektua: DBHko 4. mailako, Batxilergoko 1. mailako eta Erdi Mailako heziketa zikloetako ikasleei zuzenduta dago; oinarrizko informazioa ematen du, eta ausazko jokoek edota apustuek (online direnek zein aurrez aurrekoek) dakartzaten arriskuei, eta mendekotasun-jarrera garatzeko aukerei buruz sentibilizatzen du. Jolasari buruzko pentsamendu okerrak (distortsio kognitiboak) identifikatzeko prestakuntza ematen die ikasleei, eta gaitasun pertsonalak eta sozialak areagotzen dituzten jarrerak, balioak eta trebetasunak sustatzen ditu. 416 gizonak eta 114 emakumek parte hartu dute (AGIPAD).
- TEKNIA proiektua: Lehen Hezkuntzako azken ikasturteetako eta DBHko ikasle diren adin txikikoei eta nerabeei (9-16 urte) zuzenduta dago, osasunaren sustapena eta adikzioen prebentzioa sustatzeko. Teknologia berrien erabilera arduratsuari eta ikerketari buruzko tailerrak eta hitzaldiak barne hartzen ditu nerabeen gurasoentzat. 629 gizonak eta 785 emakumek parte hartu dute. (Oriepsi).
- Toki-erakundeek, kasu gehienetan, ikuspegi global batetik heltzen diote adikzioen prebentzioari, eta prebentzio-proiektu berean sartzen dituzte substantziadun eta substantziarik gabeko adikzioak. Hori dela eta, gutxi dira informazioaren teknologien erabilerari lotutako arriskuak prebenitzeko proiektu espezifikoak, baina aipatzekoa da Donostiako Udalak garatutako proiektua, "Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilerari lotutako arriskuei buruzko prestakuntza". Proiektu horrek irakasleei eta familiei prestakuntza-baliabideak ematea du helburu, beharrezko ezagutzak har ditzaten adingabeei informazioaren teknologien arriskurik gabeko erabilera transmititzeko.

• **Mugiment programa:** Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak sustatu du, eta, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzarekin, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin, foru-aldundiekin eta hainbat udal eta erakunderekin batera, kirol- eta osasun-zerbitzuen arteko koordinazioa bultzatzen du, toki-mailan jarduera fisikoa sustatzeko. 96 erakundek parte hartzen

dute programan, eta beren ahaleginak eta ekimenak batzen dituzte, jarduera fisikoa sustatzeko, euskal gizarte aktiboa lortzeko eta sedentarismoa murrizteko.

• Osasun Sailak ondorengo laguntzak ematen ditu **jarduera fisikoa, tokiko osasuna eta ikasleen mugikortasun aktiboa sustatzeko**:

- Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen artean jarduera fisikoa sustatzeko ekintzak garatzeko laguntzak.
- Tokiko eremuan osasuna sustatzeko programak garatzeko laguntzak 2020.
- Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen artean mugikortasun aktiboa sustatzeko ekintzak garatzeko laguntzak.

1.1.4 Hezkuntzako curriculumetik osasuna sortzen duten eta adikzioen aurrean babesten duten alderdiak indartzea.

• **Adingabeak eta Alkohola programak** ezartzen du beharrezkoa dela hezkuntza-curriculumean bizi-ohitura osasungarrien hartzea eta adikzioen prebenitzea aipatzea, ikasleek autorregulazio-gaitasunak barneratu ditzaten eta droga-kontsumoari lotutako arriskuak eta adikzioa sor dezaketen jokabideak uler ditzaten.

• **HEZIBERRI 2020 PLANA.** Osasun eta Hezkuntza sailen arteko koordinazio-lanaren ondorioz, **Heziberri 2020 Planak** osasunaren sustapenari eta adikzioen prebentzioari buruzko erreferentzia hauek jasotzen ditu:

A) **Oinarrizko hezkuntzarako curriculumaren planteamendu orokorrean.** (236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa).

A.1) Hitzezko komunikazioari, hitzik gabekoari eta komunikazio digitalari heltzen dion **zeharkako oinarrizko gaitasunaren barruan**, adierazten da ikasleek ulertu behar dutela zein diren sare sozialen erabileraren "arriskuak eta mehatxuak", eta ikasi behar dutela "gailu digital propioak babesten eta segurtasun-estrategiak eguneratzen", eta horrek balio behar duela IKTen erabilerari lotutako arriskuak zein diren ulertzeko, "informazioaren teknologiak gehiegi erabiltzeak gizabanakoaren jokabidea eta bizikidetzaren alda ditzakeela, eta **adikzioa ere sor dezakeela** azpimarratuz".

- **Zeharkako oinarrizko gaitasun horren 5. osagaian, hau da, gorputzaren funtzioak, osasuna eta ongizate pertsonala, gorputz-irudia eta sexu-identitatea autoerregulatzeko gaitasunean**, esaten da osasuna ez dela modu dikotomikoan ulertu behar (gaixotasunaren aurkakoa den aldetik soilik), baizik eta ingurunearen ikaste eta pertsonarekin elkarreragiten duen ingurunera egokitzeko gaitasun gisa. Esaten da, halaber, ikasleei transmititu behar zaien osasun-kontzeptuak "pertsonaren ahalmenen garapen optimoa baldintzatzen duten ingurumen-determinatzaile fisiko eta sozialak" hartu behar dituela barne, eta osasunaren dimentsio emozionalean azpimarratu behar dela ikasleei "**bizi-ohitura osasungarriak hartzea eta drogen kontsumoa prebenitzea**" garapen pertsonalaren eta ongizate kolektiboaren balio integratu gisa transmititu behar zaizkiela.

A.2) **Oinarrizko diziplina-gaitasunen barruan eta, zehazki, gaitasun zientifikoan**, esaten da osasun publikoa, jarduera fisikoa, elikadura osasungarria eta substantziadun edo substantziarik gabeko adikzioen prebentzioa integratzen dituzten adibideak emango direla, ikasleek ikuspegi

indibidual eta kolektibo batetik landu ditzaten, eskolaren, gizarte osoaren eta lan-esparruaren testuinguruan planteatutako fikziozko egoeren bidez. Hala, gaitasun zientifiko horren barruan, adibidez, adierazten da irakasleek honako hau jorratuko dutela ikuspegi komunitario batetik: "Osasun publikoarekin zerikusia duten egoerekin lotutako arazoak, hala nola adikzioen prebentzioa eta osasunaren mugatzaile sozialak, sendagaien eta patenteen erabilera eta kudeaketa egokia, sasizientzia, informazioaren teknologien gehiegizko erabilera, etab."

A.3) **Gaitasun teknologikoaren barruan**, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak irakasgaietan, ikasleek landu beharreko eguneroko bizimoduaren adibideak aurkeztuko dira, "teknologiaren erabilerari lotutako osasun-arriskuak" eta adikzioekin, distrakzioekin edo oreka emozionalarekin duten lotura aztertzeak, besteak beste.

A.4) **Gaitasun motorrean**, beren emozioak eta autokontrola erregulatzeko gaitasunak eta trebetasunak garatuko dituzte ikasleek, eta honako egoera eta adibide hauek planteatuko dira ikasgelan lan egiteko: "Osasunarekin eta elikadura osasungarriarekin lotutakoak, drogak kontsumitzeak pertsonen organismoan eta jokabidean eragiten dituen ondorio toxikoak, bizimodu aktibo eta osasungarriak eta jarduera fisikoaren kontzeptu hedonistarekin lotutako egoera problematikoak, baita autokontzeptu fisikoari eta ongizate psikologikoari lotutako egoera problematikoak ere".

- **Oinarrizko hezkuntzarako** curriculumaren planteamendu orokorraren barruan, osasuna sustatzeari eta adikzioak prebenitzeari buruzko aurreko erreferentziaz gain, lehen eta bigarren hezkuntzarako **planteamendu espezifikotan**, ikasleen gaitasunak indartzen dira, ongizate eta zaintza pertsonalarekin bat datozen jokabide aktiboak izateko, eta barneratzen da positiboa dela "eguneroko bizitzan drogen kontsumoa edo adikzioak sor ditzaketan jokabideak saihestea".

B) **Batxilergorako curriculumaren planteamendu orokorrean**. (127/2016 Dekretua, irailaren 6koa).

B.1) Oinarrizko hezkuntzarako planteatzen den bezala, **hitzeko komunikaziorako, hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako eta izaten ikasteko gaitasunerako batxilergoko zeharkako oinarrizko gaitasunen barruan**, ikasleek "teknologiaren erabilerarekin lotutako osasun-arriskuak" zein diren uler dezaten lortu nahi da, eta azpimarratzen da informazioaren teknologiak gehiegi erabiltzeak gizabanakoaren jokabidea eta bizikidetzak alda ditzakeela, baita adikzioa eragin ere", eta "osasuna eta ongizate pertsonala zaintzeak" eta "osasunaren dimentsio emozionalak" "drogen kontsumoaren (batez ere alkohola, tabakoa eta kalamua) eta drogarik gabeko adikzioen prebentzioarekin dutela zerikusia, ingurumen- eta gizarte-faktoreen eragina kontuan hartuta".

B.2) **Batxilergoko oinarrizko diziplina-gaitasunen barruan, beren gaitasun zientifikoan**, ikasleek bizimodu pertsonalaren, sozialaren, eskolako bizimoduaren eta laneko bizimoduaren adibideak landuko dituzte, osasun pertsonalaren zaintzarekin eta osasun publikoarekin zerikusia duten egoerak jorratzeko, bai eta adikzioen prebentzioarekin eta "informazioaren teknologien gehiegizko erabilerarekin" zerikusia dutenak ere. Horrela, eskola-eremuarekin zerikusia duten egoerak landuz, adibidez, eskola-testuingurutik hurbil dauden egoerak aurkeztuko dira, eta ikasleek ikaskuntzarekin, birziklatzarekin, gaixotasunen prebentzioarekin eta adikzioekin zerikusia duten hainbat rol edo funtzio hartuko dituzte (...)"

<https://www.euskadi.eus/heziberri/aurkezpena/web01-a3hbhezi/eu/>

1.1.5 Adikzioek osasunean eta pertsonen bizi-kalitatean eta beraien ingurunean duten eraginari buruzko sentsibilizazio- eta kontzientziazio-ekintzak garatzea. Zehatzago esanda:

- Substantzia jakin batzuei eta portaera-adikzioei buruzko sentsibilizazio-kanpainak eta bestelako ekintzak, alkoholak bezala gizartean onarpen-maila altuagoa duten substantziek sortzen dituzten kalteetan eta gazteei eragiten dieten adikzioetan arreta berezia jarritz.
- Batez ere hezkuntzako eta komunikazioko profesionali zuzendutako jarduerak.
- Sare sozialetan komunikazio estrategiak diseinatzea eta ezartzea.
- Adikzioei buruzko informazioaren eta ezagutzaren hedapena errazteko helburuarekin, komunikazio-estrategia bat garatzea komunikabideetan, batez ere EITBn eta titulartasun publikoko beste komunikabide batzuetan.

• ZAINDU markak herritarrak, oro har, alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoari buruz sentsibilizatzeko kanpaina eta ekintza guztiak identifikatzen ditu 2017az geroztik:

- Mugikorretarako ZAINDU aplikazioa, 2018tik dago abian eta 2019an ikuskatu egin da; nerabeei, gazteei, gurasoei, haurdun dauden emakumeei eta hezkuntzako, ostalaritzako eta erakundeetako eragileei zuzenduta dago. Alkohol-kontsumoaren ondorioei buruzko frogak ematen ditu, baita kontsumo horri buruzko mito faltsuak alboratzeko arrazoiak ere.



- Adingabeekin harremanetan lan egiten duten profesionalak prestatzeko eta sentsibilizatzeko programa. 1.1.3. ekintzan aipatu da.
- “Aukeratu udako argazkia” kanpaina, jai-giroetako alkohol-kontsumoaren arriskuari buruz sentsibilizatzeko. Kanpaina horretan, tokiko erakundeekin koordinatuta eta festa-batzordeen, konpartsen arduradunen, txosnen, ostalaritzako profesionalen eta abarren laguntzarekin, prebentzio-mezuak zabaltzen dira, drogen kontsumoarekin eta adikzio-jokabideekin lotutako arriskuei aurre egiteko. Festetan eta aisialdian biltzen diren pertsonen zuzendutako aholku labur bat duten hainbat laguntza-material ditu kanpainak. Material horien artean, kartelak, alkoholmetro kualitatiboak, informazio-triptikoak edo adinaren, generoaren eta pisuaren arabera alkoholak organismoan dituen ondorioak neurtzen dituzten erregletak daude.

Banaturako materiala

	Toki-erakunde kop.	Kartel-kopurua	Erregleta-kop.	Alkoholmetro-kop.
2017	22	1.500	6.000	5.350
2018	21	1.000	9.000	9.000
2019	26	655	13.300	12.950
2020	0	0	0	0

- Alkohol-kontsumoaren prebentzioari buruzko materialak banatzeko kanpaina, lehen mailako arretako zentroetan. Osakidetzaren Adingabeak eta Alkohola programaren eta alkoholaren kontsumoa diagnostikatzeko, tratatzeko eta prebenitzeko protokoloaren esparruan, ZAINDU markako materialak banatzen dira urtero, alkoholaren prebentziorako aholku labur bat emateko.

Triptikoak:

- “Alkoholaz jakin behar duzuna” “Zaindu zure gorputza. Zaindu zure txikia”



Banaturako materiala

	Osasun-zentroen kopurua	Banaturako triptikoen kopurua
2017	16	6.000
2018	16	6.000
2019	9	6.800
2020	0	0

2020an, COVID-19aren pandemiaren inpaktua dela eta, eta tokiko erakundeekin eta hirugarren sektorekoekin bat etorriz, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak uste du ezinezkoa dela alkoholaren kontsumoari buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-ekintzak egitea. Izan ere, aurrez aurreko ekintzak dira, eta, batez ere, jai- eta aisialdi-eremuetan eta kaleko eremuan garatzen dira; beraz, mugikorretarako ZAINDU aplikazioa soilik egon da aktibatuta.

• **Tabako-kerik Gabeko Euskadi estrategiaren barruan lotutako kanpainak:**

- Tabakorik gabeko Munduko Egunaren harira, 2020ko maiatzaren 28an prentsaurreko bat egin zen, Osasun sailburuaren eta Osakidetzako Osasun Laguntzako zuzendariordearen parte-hartzearekin, eta Eusko Jaurlaritzak tabakoaren aurkako borrokarekin duen konpromisoa berretsi zen. Horrela, errealitate berrira egokitzeko asmoz, sarean erretzeari uzten laguntzeko bi tresna berri martxan jarriko zirela iragarri zen, Osakidetzak egun dauden tabakismo-tratamenduak indartzeko egiten duen eskaintzaren barruan. Gainera, tratamendu farmakologikoa finantzatzen du Osasun Sailak, eta urtarriletik 11.001 pertsonari agindu zitzaizen, 1.980.000 euro inguruko kostuarekin.

<https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/61906-dia-mundial-sin-tabaco-actualizacion-datos-del-coronavirus-euskadi>

- 2020an, pandemiaren ondorioz, ez da erretzeari uzteko material lagungarri banatu.

Tabakoa uzteko banatutako materiala

	Kartelak	Triptikoak	Gidak
2017	1.000	180.000	60.000
2018	1.000	180.000	60.000
2019	600	34.200	10.300
2020	0	0	0



1.1.6 Esku-hartzeak garatzea biztanleria gizonaren ikuspegia nagusi den osotasun homogeneotzat ulertu gabe. Horrela, genero-ikuspegia txertatuko da kasu bakoitzean adikzioak sortzen dituzten gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun biologiko, psikologiko, sozial eta kulturaleri erreparatuz.

- Badira zenbait urte Osasun Sailak adikzioen arloan ematen dituen **laguntzei** buruzko aginduan genero-ikuspegia **balorazio-irizpide gisa** sartzen dela. Horren harira, adikzioen prebentzio-programak **genero-ikuspegia** daukala ondorioztatzen da, baldin eta hori diseinatu, egikaritu eta ebaluatzean emakumeen eta gizonen egoera, baldintza eta behar desberdinak kontuan hartzen badira.
- Jokabide-adikzioak dituzten emakumeei arreta ematea. Emakume horiei laguntzeko taldea, ASAJERrek Osasun Sailaren laguntzen aginduaren bidez sortua.

- Prebentzioa eta osasun integralaren sustatzea bazterketa handiko, adikzio eta arrisku egoeretan; Besarkatuz-ek egiten du, emakumeengan duen eragina ikusaraziz eta ahalduntze-prozesuan lagunduz. Osasun fisikoaren eta emozionalaren arteko harreman estua aztertzen du, eta bitzako eremu guztietako arrisku- eta babes-faktoreetan esku hartzen du.

- **Adikzio-arazoak dituzten eta genero-indarkeria pairatzen duten emakumeei laguntzeko jardunbide egokien eskuliburua** egiteko, lan-jardunaldi bat egin zen 2020an, genero-indarkerian eta adikzioen arretan esperientzia duten profesionalekin, Droga-menpekotasunen Deustuko Institutuak antolatuta, Eusko Jaurlaritzarekin duen hitzarmenaren esparruan. 2020ko abenduaren 18an egin zen.

- **Genero-ikuspegia Gizonekin, Drogen erabilera eta Adikzioak** tailerra ere antolatu zen, 4.1.4. ekintzan aipatu da.

1.1.6 bis Euskal farmazia komunitarioaren alderdi zabalena eta eraginkorra bultzatu, babestu eta garatzea, adikzioen prebentzioari dagokionez, eta, horretarako, farmazialari elkargo ofizialekin eta farmazia-bulegoekin elkarlanean aritzeko kanalak ezartzea.

- Farmaziek osasun-agente gisa jarduten dute tabakoaren mendekotasuna gainditzeko, tabakoaren kontsumoa prebenitzeko edo metadona emateko. 2020an, 209 farmaziak parte hartu dute metadona banatzeko programan, urte-sasoirean batean.

1.1.6 ter Planaren helburu, ardatz eta ekintzen artean kontsumo arduratsuari buruzko aipamenak sartzea, kontsumoa eta eskaintza murriztea bezain garrantzitsua da eta.

- Adikzioen VII. Planaren 1.4 helburuak adierazten du herritarrek gehien kontsumitzen diren eta gizartean onarpen handiena duten drogen arrisku-pertzepzioa areagotzen duten jarduerak finkatu behar direla. 17. ekintzak Adingabeak eta Alkohola programaren garapena ezartzen du. Programa horren azken helburua alkoholaren kontsumoa prebenitzea eta adingabeak babestea da.

Programa horren esparruan, hainbat ekimen nabarmendu behar dira, hala nola online alkohola banatzeko prestakuntza eta sentsibilizazio material bat sortzea, jatetxeetako eta ostalaritzako profesionalei zuzenduta. Material horrekin batera, praktika osasungarriak sustatzeko programa bat garatzen da, hori ere jatetxe-arloko eta jai- eta aisialdi-arloko profesionalei zuzenduta, eta prestakuntza- eta kontzientziazio-tailer batzuekin gauzatzen da.

- **Alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoari lotutako arriskuak murrizteko sentsibilizazio- eta prestakuntza-programa,** gazteekin eta adingabeekin harremanetan lan egiten duten profesionalentzat.

Tailer-kopurua, lurralde historikoaren arabera

	2017	2018	2019	2020	Guztira
Araba	3	3	4	0	9
Bizkaia	13	18	13	0	44
Gipuzkoa	6	7	15	2	30
Guztira	22	28	32	2	84

<https://www.euskadi.eus/informazioa/sentsibilizazio-gunea/web01-a3alcoho/eu/>

Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, 2020an eta COVID-19aren eragina eta programaren aurrez aurreko izaera direla eta, 30 izatetik 2 izatera igaro da egindako tailerren kopurua.

1.2 helburua. Osasunaren sustapena eta adikzioen prebentzioa bultzatzea arrisku- edo urrakortasun-egoera berezian dauden pertsonengan eta taldeetan.

Ekintzak:

1.2.7 Arrisku- eta urrakortasun-egoera berezian dauden familien, adingabeen eta pertsonen hautemate goiztiarrerako esku-hartze eraginkorrak indartzea, baita jarraipenerako eta ebaluaziorako sistemak ere.

- Urteak dira Osasun Sailak Adikzioen arloan emandako **laguntzen aginduan** jarduera-ildo hori sartzan dela, eta balorazio-irizpidetzat hartzen da. Zehazki, kolektibo edo pertsonen **arrisku-maila** hartzen da kontuan, eta arreta berezia jartzen da alkoholaren kontsumoa prebenitzeko programen xede diren adingabeengan. Kalteberatasun edo bazterkeriatzat hartzen dira kontsumo edo jokabide problematikoaren edo bestelako arrisku-egoeren probabilitate handia dakarten ezaugarri pertsonalak, familiakoak, sozialak edo ingurumenekoak, eta arreta berezia jartzen da alkoholaren kontsumoa prebenitzeko programen xede diren adingabeengan.

Jarduera-arlo horretan, hirugarren sektoreko erakundeek esku-hartze eta detekzio goiztiarreko proiektuak garatu dituzte 2020an, Bige Gurasoen Elkarteak, besteak beste. Kalteberatasun-indize handiak dituzten eta drogekin eta mendekotasuna eragin dezaketen beste jarduera batzuekin harreman problematikoak ezartzeko aukera handia duten subjektuei laguntzeko baliabide integrala eskaintzen du elkarteak. Era berean, bereziki kalteberak diren adingabeak goiz detektatzeko proiektua egin du Etorikintza Fundazioak.

Hirugarren sektoreko erakundeek bezala, toki-erakundeek ere kasuak goiz detektatzeko eta gainbegiratzeko proiektuak garatzen dituzte; Ugaoko Udala, adibidez, zailtasun psikosozio-emozionalak dituzten ikasleak garaitzeko detektatzeko proiektua egiten ari da duela urte batzuetatik, irakasleei jarraipen eta aholkularitza espezializatua emanda. Beste adibide aipagarri bat Donostiako Udalaren detekzio goiztiarreko programa da; ikastetxean hasten da esku-hartzea, eta hiru jarduera-ardatz ditu oinarri: alde batetik, profesionalen prestakuntza; bestetik, profesionalei kasuei heltzeko eta horien jarraipena egiteko aholkularitza ematea eta, azkenik, kaltetutako familiekiko esku-hartze zuzena.


Jokabide-adikzioekin soilik lotutako detekzio goiztiarreko proiektuak ere egiten dira. Hala, Adsis Fundazioak informazioaren teknologien erabilerarekin lotutako adikzioak prebenitzeko eta detektatzeko proiektu bat egiten du, balizko kalteak saihestu eta prebenitzeko, larriagoak izan daitezkeen beste egoera batzuei aurrea hartuz. Teknologien erabilerarekin lotutako adikzioaren sintomak dituzten nerabeei zuzendutako proiektua da. Gazteekin eta familiekin lan egiten da, eta banakako jarraipena egiten da, arriskuak murrizteko eta kalte handiagoak saihesteko.

1.2.8 Arrisku- eta urrakortasun-egoera berezian dauden taldeei eta pertsonei zuzendutako programak finkatzea eskolako, familiako, laneko eta aisiako eta jaietako eremuetan.

- Osasun Sailak adikzioen arloan ematen dituen laguntzei buruzko aginduaren bidez, zenbait erakundek burutzen dituzten adierazitako prebentzio-proiektuak finantzatzen laguntzen da. Adikzioaren irizpide diagnostikorik ez daukaten baina aurretiko zeinuak, adibidez, substantzia-abusuen sintomak edo jokabide-arazoak, dituzten pertsonei zuzentzen zaie.

Adierazitako prebentzio-proiektuak eta artatutako pertsonak

	Hirugarren sektoreko erakundeen proiektuen kop.	Toki-erakundeen proiektuen kop.	Proiektuak guztira	Arreta jaso duten pertsonen kop.	
2017	4	13	17	2.061	
2018	6	0	6	1.616	
2019	9	0	9	1.984	
				G	E
				1.195	789
2020	11	1	12	2.757	
				G	E
				1.394	1.362



Grafikoak gorazko joera erakusten du 2020an, artatutako arrisku edo zaugarritasun handieneko pertsonen kopuruan.

Adibidez, proiektu hauek aipa daitezke, 2020an diru-laguntza jaso baitute:

- Zaugarritasun-egoeran dauden, jokabide disruptiboak daukaten eta drogak kontsumitzen dituzten nerabeekiko eta familiekiko esku-hartzea (Deustu-San Inazioko Modulu Psikosoziala).
- Hazgarri proiektua, arrisku edo zaugarritasun bereziko egoeran dauden pertsonen eta kolektiboen osasuna sustatzeko eta adikzioak prebenitzeko (Jeiki Fundazioa).

- Zaurgarritasun handia duten nerabeen familientzako arreta eta esku-hartzea (Etorkintza Fundazioa).
- LANTZEN proiektua, gazte etorkin zaurgarriekin droga-menpekotasunak prebenitzeko adierazitakoa (Erain).
- Gasteizko Udalak egoera zaurgarrian dauden gazteentzako prebentzio-proiektu bat garatu du, eskolan hasten diren esku-hartzeekin, arrisku handieneko gazteak detektatzeko eta balioak, jarrerak eta jokabide prosozialak transmititzeko.

1.2.9 Adikzioa sortzen duten substantzien kontsumo arazotsuak eta jokabideko adikzioak dituzten nerabeei eta gazteei zuzendutako programen alde egitea, baita teknologia digitalen erabilera egokia bultzatzen dutenen alde ere.

- 2020an, 236.000 euro esleitu dira laguntzen aginduan, hirugarren sektoreko erakundeen arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko proiektuak finantzatzeko, "**Euskadin ausazko jokoarekiko adikzioa eta substantziarik gabeko beste adikzio batzuk prebenitzea eta tratatzea**" helburu dutenak.
- Egoera zaurgarrian dauden gazteen prebentzio selektibo eta adieraziaren ildotik, hainbat proiektu gauzatu dira laguntzen aginduaren bidez. 2020an, honako hauek aipa ditzakegu:
 - Jokabide-adikzioen esparruan, prebentzioan eta tratamenduan jokabide-adikzioak prebenitzeko arreta psiko-educatiboko programa bat garatzen da, espezializazio tekniko handikoa, jokoarekin zailtasunak dituzten gazteentzat (Erain).
 - Prebentzio selektiboa eta prestakuntza-zentroetan adierazia: esku-hartze psikosozialeko programa integrala, bai drogekin lotutako arrisku larrian dauden ikasleekin, bai haien familiekin (Erain).

1.2.10 Gazteei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak martxan jartzea, baldin eta ekintza horiek droga eta ausazko zein online jokoek osasunean eta autonomia pertsonalean duten inpaktuaren arrisku-pertzepzioa eta ezagutza areagotzen laguntzen badute.

- 2020an Osasun Sailak adikzioen arloan ematen dituen **laguntzei buruzko aginduaren** bidez, hainbat proiektu garatu dira, sentsibilizazio ekintzak barne. Hona hemen adibide batzuk:
 - Drogen eta alkoholaren kontsumorako prebentzioa: prebentzio selektiboa, jai arloan (Kilometroak Kultur Erakundea).
 - Gipuzkoan tabakismoa eta kalamu-kontsumoa prebenitzeko eta murrizteko proiektua, herritarrak, oro har, kontzientziatzeko (Minbiziaren aurkako Gipuzkoako Espainiako Elkarteak).
 - Tabakoaren Esfúmate Proiektua, herritarrek erretzeari utz diezaioten sustatzeko (Minbiziaren aurkako Bizkaiko Espainiako Elkarteak).

- Jokabide-adikzioei dagokienez:
 - Prebentzio-tailerrak ikastetxeetan, ausazko jokoen eta kirol-apustuen erabileran zenbait portaeraren arriskuei buruzko informazioa emateko eta arrisku horiek minimizatzeko (Etorkintza Fundazioa).
 - Nerabeen joko patologikoaren prebentzio unibertsaleko proiektua, DBHko 4. mailako, Batxilergoko 1. mailako eta Erdi Mailako heziketa-zikloetako ikasleei zuzendua. Ausazko jokoei buruzko oinarriko informazioa emateko, ausazko jokoa (online eta aurrez aurrekoak) berekin dakartzan arriskuei buruz eta adikzio-jokabidea garatzeko aukerei buruz sentsibilizatzeko (AGIPAD Drogen Abusuaren Ikerketa eta Prebentziorako Gipuzkoar Elkarte).

1.3 helburua. Substantzien kontsumoari eta adikzioak sortzeko arriskua duten gehiegizko jokabideei lotutako arriskuak murriztea.

Ekintzak:

1.3.11 Aisia-guneetan drogen (substantzien) kontsumotik sortutako arriskuak eta sexu-abusuak murriztuko dituzten prebentziosko neurrien identifikazioan aurrera egitea.

Toki-erakundeek prebentzio-proiektuak garatzen dituzte komunitate-eremuan, eta modu integralean jorratzen dute drogen kontsumoari lotutako arriskuen murrizketa, kontsumo horiekin lotutako arrisku-jokabideak barne. Testuinguru horretan, Mungialde Mankomunitatearen programa komunitarioa nabarmendu behar da. Azken urteotan egin da, eta inguruko gizarte-eragileek osasuna eta balio prosozialak sustatzen parte hartu dute. Programa horren barruan sentsibilizazio-kanpainak eta kontzientziazio-proiektuak egiten dira hainbat alderdiri buruz, hala nola adingabeei alkohola saltzea debekatzeari eta drogen kontsumoari lotutako arriskuak murrizteari buruz, eta sexu-transmisio bidezko gaixotasunak eta sexu segurua bezalako gaiak sartzen dira, batez ere gazteen artean.

1.3.12 Jai eta aisia-eremuetara zuzendutako prebentzio edo/eta arrisku-murrizketarako programak indartzea.

2020an, COVID-19aren pandemiak kalte handia egin die jai- eta aisialdi-eremuan aurreikusitako proiektuei, eta ez da halakorik egin, ia. Hala, Testing programa, adibidez, 16.265 pertsonakoa izatetik 440 pertsonakoa izatera igaro da, hau da, urtebete lehenago egindakoaren %2koa baino zertxobait gehiago. Jai-eremuetan alkohol-kontsumoa prebenitzeko Alkoholimetriak izeneko programan, 2020an ez du parte hartu 2019an parte hartu zuten pertsonen %1ek ere (16.996 eta 149 pertsona, hurrenez hurren).

- **Testinga:** jolas-eremuetan egindako prebentziosko esku-hartzeak, pertsonak, batez ere nerabeek eta gazteek, horrelako inguruneetan egiten duten drogen jolas-kontsumoari lotutako arriskuak murrizteko asmoz. Ibiltariak dira eta jende asko joaten den jai-esparruetan eta tokietan egiten dira. Kontsultei emandako arreta, informazio-materialaren banaketa eta laginak analizatzeko zerbitzua nabarmendu daitezke.

Testing programan parte hartu duten pertsonen kopuruaren eboluzioa

	Toki-erakundeek kop.	Esku-hartzeen kopurua	Pertsona-kopurua	
2017	39	47	17.387	
2018	39	62	18.046	
2019	37	63	16.265	
			G	E
			10.332	5.933
2020	2	3	440	
			G	E
			297	143

Taulak programa horren barruan egindako esku-hartze guztiak biltzen ditu, bai Eusko Jaurlaritzak bai toki-erakundeek garatutakoak.

- **Alkoholimetriak:** alkohol-kontsumoari lotutako arriskuak prebenitzeko eta murrizteko zerbitzua, aisia-guneetan esku hartuz. Ibiltariak dira eta jende asko joaten den jai-esparruetan eta tokietan egiten dira. Zehatz-mehatz, alkohol-kontsumoaren arriskuei buruzko informazioa ematen da, alkoholemia-test bat egiten da (informatzeko) eta oinarriko prebentzio-materiala (alkoholometroak, erregletak, liburuxkak eta preserbatiboak) banatzen dira.

	Toki-erakundeek kop.	Esku-hartzeen kopurua	Pertsona-kopurua	
2017	52	73	15.137	
2018	48	71	16.371	
2019	55	77	16.996	
			G	E
			10.588	6.408
2020	2	4	149	
			G	E
			83	66

Taulak programa horren barruan egindako esku-hartze guztiak biltzen ditu, bai Eusko Jaurlaritzak bai toki-erakundeek garatutakoak.

- **Erabilera ludikoko lonjak:** Erabilera ludikoak dituzten lonjetan arriskuak prebenitzeko eta murrizteko zerbitzua. Programa *in situ* garatzen da, gazteak biltzen diren lonjetara joanez, drogen kontsumoak dakartzan arriskueta sakontzea ahalbidetuko dieten gai batzuk taldean jorratzeko, eta droga-testak egiteko aukera ere ematen zaie, arriskuak murrizteko prebentzio-aholku laburra indartzeko.

	Lonja-kopurua	Gazte-kopurua	
2017	29	536	
2018	53	842	
2019	35	589	
		G	E
		440	149
2020	0	0	
		G	E
		0	0

Taulak programa horren barruan egindako esku-hartze guztiak biltzen ditu, bai Eusko Jaurlaritzak bai toki-erakundeek garatutakoak.

2020an, Covid-19aren pandemiaren ondorioz, berariaz debekatu da pertsonak erabilera ludikoko lonjetan biltzea, eta, beraz, ezinezkoa izan da prebentzio-programa hori egitea.

- Laguntzei buruzko aginduaren bidez, Osasun Sailak udalerriek eta hirugarren sektoreko erakundeek eremu horietan burututako programak finantzatzen laguntzen du.

Laguntzen aginduaren bidez garatutako jai- eta aisialdi-proiektuak

	Toki-erakundeak	Hirugarren sektorea	Guztira
2018	15	5	20
2019	18	4	22
2020	8	3	11

1.3.13 Adikzioa sortzen duten substantzien kontsumoaren arriskuaz gehiago jabetzera zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak gauzatzea, kalamuaren kasua azpimarratuz, haren kontsumoak sortzen duen arriskuaren jabetze txikia kontuan izanda.

- **Bizi tabakorik gabe** sentsibilizazio-kanpaina. Pandemiaren ondorioz, 2020an ez da materialik banatu osasun-zentroetan, baina Eusko Jaurlaritzaren adikzioen webgunean dago eskuragarri.
- **Kartelak banatzeko kanpaina**, edari alkoholdunen, tabako-produktuen eta nikotina aska dezaketen gailuen seinaleztapenari buruzko azaroaren 26ko 187/2019 Dekretuaren esparruan. 45.000 ale inprimatzen dira, eta informazio-gutun batekin batera bidaltzen dira ostalaritzako establezimenduetara, estankoetara, joko-establezimenduetara, ospitaleetara eta osasun-zentroetara. Gainera, 450 PVC plaka bidaltzen dira ESletara, osasun-zentroak seinaleztatzeko.



Edari alkoholdunen, tabako-produktuen eta nikotina aska dezaketen gailuen inguruko seinaleei buruzko hainbat establezimendutako kartelen kopurua

Ostalaritza	Joko-aretoak	Estankoak	Osasun zentroak
21.134	508	2.020	853

- **“Kerik gabeko lantokiak”** kanpaina, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileak tabako-kerik gabeko lan-espazioak izatearen garrantziaz kontzientziatzeko diseinatua. 2020an, Eusko Jaurlaritzaren Gasteizko egoitzan jarri da martxan. Eraikinaren sarrera nagusietan *roll up*-ak jarri dira, tabakoa eta zigarreta elektronikoak kontsumitzea debekatuta duten lekuak adierazi dira, eta langile guztiei informazio-gutun bat bidali zaie.



1.3.14 Farmako psikotropikoen erabilera neurrigabea prebenitzeko programak eta jarduketak diseinatzea, batez ere emakumeen kasuan.

- **Emakumeei eta psikofarmakoei buruzko txosten monografikoa** argitaratzea. Artikulu zientifikoak, erreferentziazko bibliografia eta Euskadiko datuak aurkeztu dira. SIISek egin du, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren enkarguz.

https://www.siiis.net/documentos/DrogomediaMonografikoak/MD_08.pdf

1.3.15 Prebentzio-programak eta -jarduerak diseinatzea, arriskuaren pertzepzioa areagotzeko, jokoaren eta teknologia digitalen erabilera desegokiari eta horien aplikazio berriei lotutako arriskuak murrizteko, bai eta adikzioak sor ditzaketen gehiegizko jokabideei lotutakoak ere.

- Osasun Sailak **Jokoaren Euskal Behatokia** parte hartu du. Behatokia zeharkako organo kolegiatua da, eta Euskadin jokoaren etengabe aztertzea du helburu. 2020an, Adikzioen Zerbitzuak Jokoaren Euskal Behatokiaren 2 bileratan parte hartu du (2020ko abenduaren 14an eta uztailaren 21ean). Bilera horietan, EAEko biztanleen joko-ohiturei eta joko patologikoari buruzko txostenak baloratu dira.
- 2020an Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea Euskadin 2020an irabazi askorik gabeko erakundeek egindako **joko patologikoari buruzko informazioarako eta prebentzio unibertsalerako jarduerak egiteko laguntzen Agindua** idazteko.

1.4 helburua. Gehien kontsumitzen diren eta gizartean onarpen-maila handiena duten substantziak normalizat ez hartzeko jarduketak finkatzea.

Ekintzak:

1.4.16 “Tabako-kerik gabeko Euskadi” estrategia indartzea.

- **Kerik Gabeko Gazteak (KGG)** programa, 1.1.3 ekintzan aipatutakoa, 2011n jarri zen abian, eta bertan Euskadiko 70.000 ikasle inguruk hartu dute parte. 2017-2018ko ikasturtera arte, DBHko 1. eta 2. mailetara zuzentzen zen, baina 2018-2019ko ikasturtetik aurrera Lehen Hezkuntzako 6. mailakoei ere eskaintzen zaie. Ikasturte bakoitzaren hasieran, material berriak sartzen dira eta eskola-lehiaketarako lantzeko gai berri bat proposatzen da.

Parte hartu duten ikasleak, urtearen arabera

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
2017-2018	1.946	2.787	2.549	7.282
2018-2019	1.572	2.875	2.139	6.586
2019-2020	1.151	3.045	1.167	5.863


KGG programan parte hartu duten ikastetxeen kopurua, 2011-2019

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
2017-2018	21	31	27	79
2018-2019	12	34	30	76
2019-2020	10	37	24	71

1.4.17 Adingabeak eta Alkohola programa garatzea.

Adingabeak eta Alkohola programak 35 ekintza eta horiekin lotutako 30 jarduera biltzen ditu. Komunitate, hezkuntza, osasun, arau, prestakuntza eta sentsibilizazio arloetan garatzen dira nagusiki. Adingabeak eta Alkohola programaren birtualtasuna honetan datza: erakunde publiko eta pribatuek garatzen dituzten ekimenen multzo bat bildu, sustatu eta koordinatu izanan, azken helburua adingabeak edari alkoholduen kontsumoak dakartzan arriskuetatik babestea izanik.

COVID-19aren pandemia dela eta, 2020an ezin izan dira egin programan aurreikusitako ekintza asko. Batez ere, jai- eta aisialdi-eremukoak edo komunitate- eta kale-eremukoak. Baina nabarmentzekoa da adikzioen prebentzio komunitariorako programak sustatzea aurreikusten duen Adingabeak eta Alkohola programan aurreikusitako lehen ekintzaren barruan, eta, zehazki, adingabeei zuzendutakoan, 60.000 ikaslek baino gehiagok parte hartu dutela hezkuntza-arloko prebentzio-proiektuetan, toki-erakundeek eta Eusko Jaurlaritzak finantzatuta.



https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/adicciones_menores_alcohol/eu_def/adjuntos/EgitarauaAdingabeakAlkohola.pdf

1.4.18 Zigarro elektronikoaren eta nikotina aska dezaketen gailuen erabileran sentsibilizatzeari buruzko programa berezia garatzea.

- **Kerik Gabeko Gazteak** programan, nikotina aska dezaketen gailuen erabileran sentsibilizatzea barne hartzen da eduki gisa. Gainera, kontsumitzeko modu berriei buruzko beste unitate didaktiko bat sartu da 2020an.
- **1/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoak**, guztiz parekatzen ditu tabakoaren eta nikotina aska dezaketen gailuen publizitatea, kontsumoa, salmenta eta hornidura.
- 2020an 1.3.13 bis ekintzan aipatutako seinaleei buruzko dekretuan aurreikusitako **kartelak** banatu dira. Araudiaren ikuspegitik tabakoarekin duen baliokidetasuna argitzea da helburua.

2. ARDATZA: Eskaintzaren murrizketa

HELBURU OROKORRA: Adikzioak sor ditzaketen substantzietarako eta jardueretarako sarbidea mugatzea, horien kontsumoaren aurrean gizartean dagoen tolerantzia murriztea eta indarrean dagoen arautegiaren betetzea bultzatzea.

2.1 helburua. Tabakoaren, alkoholaren eta adikzioak sor ditzaketen legezko beste substantzia batzuen sustapenarekin, publizitatearekin, salmentarekin, hornidurarekin eta kontsumoarekin erlazionatutako jarduerak kontrolatzea.

Ekintzak:

2.1.1 Adikzioei buruzko arautegian eskaintzaren eta kontsumoaren murrizketarekin erlazionatuta dauden esku-hartzeak indartzea, inplikaturako eragileen arteko koordinazio hobearen bitartez.

- 2019an edari alkoholdunen eta beste droga batzuen kontsumoaren arloko zehapenak ordeztzeko egindako lanari jarraipena emateko, 2020an txosten bat egiteko eskatu zion Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak Kriminologiaren Euskal Institutuari (KREI). Txosten horretan, **neurri alternatiboen sistemaren proposamen bat** jasotzen da, inplikaturako eragileekin adostuta, eta **neurri horiek ezarri ahal izateko sare baten sortzea ere.**

2.1.2 Eskaintza murriztu eta kontrolatzeko programak garatzea, ostalaritzara zein bestelako guneetara, ekitaldi eta kontsumo- zein salmenta-puntuetara zuzenduak, sustapenean eta salmentan autokontrola eta ardura indartuz, genero-ikuspuntutik, kontuan hartuta adikzioak dituzten emakumezko nerabeak gero eta gehiago direla.

- Alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoari lotutako **arriskuak murrizteko prestakuntza-zerbitzua** garatzea, gazteekin eta adingabeekin harremanetan lan egiten duten profesionalentzat, batez ere ostalaritzaren eta hezkuntza ez-formalaren esparruan. 1.1.3. ekintzan deskribatutako jarduera.

2.1.3 Tabako, zigarro elektronikoko eta alkoholaren arloan ikuskatze- eta zigortze-eskumenaz baliatzean dauden prozeduren protokoloa egitea.

- Abenduan Edari alkoholdunen, tabako-produktuen eta nikotina aska dezaketen gailuen arloko seinaleei buruzko azaroaren 26ko 187/2019 Dekretua 2019ko argitaratu ondoren, dekretu horretan aurreikusitako kartelak **banatzeko kanpaina** egin da 2020an, 1.3.13 ekintzan deskribatutakoa.

2.1.4 Botika psikotropikoen legez kanpoko banaketa eta merkataritzari buruzko egungo kontrol- eta erregistro-sistemari eustea eta, hala badagokio, hobetzea.

Apirilaren 7ko 1/2016 Legeak, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoak, sendagai psikotropikoak prebenitzeko eta Osasun Administrazioak horiek behar bezala erabiltzeko neurriak jasotzen ditu.

2.1.5 Zehapenen aurreko neurri alternatiboak indartzea —legezko eta legez kanpoko substantzien kasuan—, norberaren ekintzen gaineko erantzukizuna indartzeko.

- Kontu hori Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko 1/2016 Legea garatzeko egingo den dekretuan, zehapenak ordeztuko prozedurari buruzkoan, arautuko da.

Bilboko, Gasteizko, Donostiako, Portugaleteko edo Barakaldoko udalek, besteak beste, edari alkoholduen eta kalamuaren kontsumoaren prebentzioa sustatzen duten programak garatzen dituzte, adingabeei zuzendutako zehapenen ordeztuko neurrien bidez.

- Kriminologiaren Euskal Institutuaren txostena, **neurri alternatiboaren sistemaren proposamen bat eta neurri horiek ezartzeko sare bat sortzea** jasotzen dituen, 2.1.1 ekintzan deskribatutakoa.

2.1.5 bis Administrazio publikoek, toki-erakundeek eta ekitaldien sustatzaileek eta antolatzaileek alkoholik eta drogarik gabeko aisia- eta jai-eredu bat sustatu eta erabakitasunez bultzatzea.

- Puntu honetan, **jai-eremuko jarduketak**, 1.3.12 ekintzan aipatutakoak, nabarmendu daitezke.
- 2020an, Osasun Sailak adikzioen arloan ematen dituen laguntzei buruzko aginduaren bidez, **aisia alternatiboko eredu bat sustatzeko programa eta proiektuetarako** dirulaguntzak eman dira. Hona hemen adibide batzuk:
 - Kilometroak Kultur Elkartea: “Drogen eta alkoholaren kontsumorako prebentzioa”, helburua da Kilometroak festan giro osasungarria sustatzea. 2020an, pandemia dela eta, jaia ez da egin, baina proiektua egoera berrira egokitu da, eta blog bat sortu da hainbat materialekin, festan parte hartu behar zuten ikastetxeetako ikasleekin lanean jarraitu ahal izateko.
 - Arrigorriagako Udala: “Aisialdi eta denbora libre osasungarria lantzeko hezkuntza”
 - Aretxabaletako Udala: “UDA proiektuan parte hartzea”. Kirolaren eta komunitatearen parte-hartzearen bidez osasuna sustatzeko eta adikzioak prebenitzeko sareak ezartzen dituen programa.
 - Eskoriatzako Udala: “Herriko taldeek antolatutako jardueretan parte hartzea”. Koordinazio-proiektua, herritarren parte-hartzearen bidez aisialdi alternatiboa sustatuko duten lantaldeak bultzatzeko.
 - Santurtziko Udala: “JOLASTU BIZI Droga-kontsumoaren eta indarkeriaren prebentzioa”. Esperientzia pilotu gisa ezarri da, Nazio Batuen Bulegoak (UNODC) drogen eta krimenaren aurka garatzen duen izen bereko programatik abiatuta. Programa horren helburua da kirolaren bidez bizitzarako trebetasunak eskuratzea.

2.2 helburua. Legez kanpoko drogen merkataritza kontrolatzea eta horien eskaintza eta presentzia murriztea.

Ekintzak:

2.2.6 Legez kanpoko drogen eta talde delitugileen eta eskala txikiko eta handiko banaketasareen aurreko esku-hartzeak indartzea, Ertzaintzaren eta tokiko polizia-indarren arteko lankidetzari handiagoa sustatuz.

Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko 1/2016 Legeak zenbait jarduera-irizpide ezartzen ditu, eta Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoek irizpide horiek hartu behar dituzte kontuan legez kontrako droga-trafikoa jazartzeko.

2.2.7 Zainketa eta alerta goiztiar sistema (SVAT) indartzea.

- 2017-2018an, **Euskadiko Zaintza eta Alerta Sistema (SVAT)** finkatu zen. Sistema horren helburua droga sortuberriak eta arriskutsuak detektatzea da, bai eta kontsumo-eredu berriak ere.

Osasunerako arriskutsuak diren substantziak zaintzeko eta, ondoren, haiei buruz ohartarazteko, Ai Laket elkartearen eta Gizakia Fundazioaren parte-hartzea Osasun Sailak, elkarte horiek jasotzen baitituzte laginak; baita EHUko Ikerketa Zerbitzu Orokorreko laborategiaren (SGIKER) laguntza ere, ezohiko substantzien edo substantzia arriskutsuen bila bidalitako substantziak aztertzen baititu.

Zaintza eta alerta goiztiarreko programaren barruan, 300 lagin inguru aztertzen dira urtero: 2017an 335 lagin izan ziren, 2018an 296, 2019an 320 eta 2020an 150.

- Laginen analisiaren emaitzarekin, Eusko Jaurlaritzak Espainiako Alerta Goiztiarreko Zerbitzuari (SEAT) jakinarazten dizkio detektatu diren substantzia berriak edo arriskutsuak; zehazki, Drogen Plan Nazionaleko Informazio eta Dokumentazio Sistemen Unitatearekin jartzen da harremanetan, eta hark Drogen Europako Behatokiari bidali dio informazio hori.

SEATi helarazitako alertak:

- Bi alerta 2017an, uztailan eta azaroan.
- Bi alerta 2018an, maiatzean eta urrian.
- Bost alerta 2019an, uztailan, irailean, urrian eta azaroan.
- Hiru alerta 2020ko abuztuan, ezohiko substantziengatik.

- GABIA Adikzioen Behatokiaren webgunean badago SVATerako berriazko webgune bat, esteka honetan dago eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/alerta-sistema-gabia/web01-a3gabia/eu/>

2.3 helburua. Eskaintza murriztea eta moderazio- eta erantzukizun-balioak sartzea jokoarekin eta teknologia digitalekin erlazionatutako jardueren eskaintzan.

Ekintzak:

2.3.8 Sektorearen autokontrolera eta erantzukizunera zuzendutako neurriak bultzatzea, jokoaren eta teknologia digitalen publizitatean eta eskaintzan.

- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza Segurtasun Saileko **Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzarekin elkarlanean aritzen da**, eta kontu horien inguruko foro guztietan parte hartzen du:
 - **Jokoaren Batzorde Tekniko Aholkularia**; 2020ko urtarrilaren 9an bildu zen.
 - **Jokoaren Euskal Kontseilua**; 2020ko urtarrilaren 9an bildu zen.
- **Jokoaren Euskal Behatokia parte hartzea**, 1.3.15 ekintzan aipatutakoan.
- 2020an Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea, Euskadin 2020an irabazi askorik gabeko erakundeek egindako **joko patologikoari buruzko informaziorako eta prebentzio unibertsalerako jarduerak egiteko laguntzen Agindua** idazteko.
- 2020rako EAEko Aurrekontu Orokorrei buruzko 13/2919 Legea onartzean, 236.000 euroko partida bat sartu zen, "Euskadin ausazko jokoarekiko eta substantziarik gabeko beste adikzio batzuekiko adikzioa prebenitzea eta tratatzea" helburu zuten proiektuak diruz laguntzeko (Elkarrekin Podemos legebiltzar-taldeak aurkeztutako 23. zuzenketarekin bat etorritz).

3. ARDATZA: Osasun-laguntza, laguntza soziosanitarioa eta gizarteratzea

HELBURU OROKORRA: Adikzioen eta jokabide eta kontsumo arazotsuen ondoriozko arriskuak eta kalteak txikiagotzea eta, Euskadiko osasunaren eta gizarte-zerbitzuen sarearen bidez, adikzioen fenomenoak dakartzan laguntza-beharrei erantzun jarraitua, koordinatua eta eraginkorra ematea, genero-ikuspegiarekin.

3.1 helburua. Osasun- eta gizarte-arretarako sarbidea eskaintzea adikzioak dituzten edo izan ditzaketen pertsonen behar indibidualetan zentratua, pertsona bakoitzaren berezitasunak errespetatuta eta ekitate sozioekonomikoaren eta generoaren ikuspuntutik.

Ekintzak:

3.1.1 Hautemate goiztiarreko sistema indartzea, arreta berezia jarriz komunitateko arretako eta lehen mailako arretako baliabideetan, herritarrekin harremanak ezartzeko puntu gisa, profesionalentzako prestakuntza indartuz.

• **Bai elkarteek bai udal-talde teknikoek adikzioen prebentzio komunitariorako egindako programak mantentzea eta bultzatzea**, Osasun Sailak adikzioen eremuan ematen dituen laguntzei buruzko aginduaren bidez.

2020an diruz lagundutako proiektuen adibideak:

- Bige Gurasoen elkarteak: “Zaurgarritasun-faktoreei eta kontsumo arazotsuei buruzko esku hartze goiztiarra adingabeekin eta familiarekin eskola-eremuan, eskola-adinean dauden ikasleentzat eta zaurgarritasun indize altuak dituzten haien familientzat izaera psikopedagogikoko laguntza-zerbitzu/baliabide integrala eskaintzeko.
- Etorikintza: “Eskola-eremuan osasuna sustatzeko eta adikzioak prebenitzeko proiektua”, haur hezkuntzako, lehen hezkuntzako, bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikastetxe guztiei orientazioa eta aholkularitza emateko.
- Agipad: “Prebentzio selektibo komunitarioko proiektuak Gipuzkoako udalerrietan”, drogen kontsumoen eta substantziarik gabeko adikzioen aurrean kalteberenak diren adingabeak eta gazteak babesteko faktoreak sustatzea, eta eremu komunitarioan hezkuntza-prozesuen bidez jarrera eta ohitura osasungarriak sustatzea helburu duena.
- Donostiako Udala: “Adingabeen arrisku- eta babesgabetasun-egoerak prebenitzeko, detektatzeko eta goiz esku hartzeko prestakuntza- eta sentsibilizazio-proiektua”, ikasleei, irakasleei, gurasoei eta udalerriko beste gizarte-eragile batzuei zuzendutakoa, profesionalak prestatuz eta aholkatuta, eta familiarekin zuzenean esku hartuta.
- Vitoria-Gasteizko Udala: “Prebentzio unibertsaleko proiektua, selektiboa eta familia-eremurako”, arrisku- eta kalteberatasun-egoeretan laguntza eskatzen duten 13 eta 21 urte bitarteko gazteen gurasoei zuzendua.

- Enkarterriko Mankomunitatea: “Arrisku-egoeran dauden gazte eta nerabeen familiekin esku hartzea”, indibidualizatua eta tratamendu terapeutikoa, adikzio-jokabideak eta arrisku-kontsumoak dituzten gazteen gurasoei zuzendua.
- Ugao-Miraballeseko Udala: “Osasunaren sustapena eta arrisku-egoeren detekzio goiztiarra hezkuntza-eremuan”. Zailtasun psikoemozionalak dituzten ikasleen detekzio goiztiarrean datza, irakasleei laguntza eta aholkularitza espezializatua emanez eta kasuak gainbegiratzuz. Kasuak berrikusita, hezitzaileei (aholkularia, irakasleak, begiraleak) espazio bat eskaintzen zaie, kezka sortzen duen eta esku-hartze espezifikoagoa eskatzen duen ikasle jakin baten edo ikasgela/talde baten egoera eztabaidatu eta aztertu ahal izateko.

3.1.2 Talde espezifikoetako urrakortasun-egoeran daudenei eskaini beharreko arretan hobetzeko alderdiak identifikatzea: talde horien behar bereziak aztertzea, hautemate- eta tratamendu-baliabideak hobetzea eta gizarte-zerbitzuen, lehen mailako arretako zerbitzuen eta buru-osasuneko zerbitzuen arteko koordinazioa indartzea. Zehazki, honako hauei emango zaie berariazko arreta:

- **Patologia duala eta patologia anizkoitzak dituzten pertsonak.**
- **Familiako erantzukizunak gain hartzeko presio handiagoa izateagatik eta gizartean estigmatizazio handiagoa izateagatik tratamenduan hasteko gizona bakoitzaren bakoitzaren zailtasun gehiago eta eboluzio okerragoa dituzten emakumeak.**
- **Adikzio-arazoak edo horiek izateko arriskuak dituzten adingabeak.**
- **Adikzio-arazoak edo horiek izateko arriskuak dituzten 65 urtetik gorako pertsonak.**

- **Genero-indarkeria pairatzen duten eta adikzio-arazoak dituzten emakumeei laguntzeko jardunbide egokien eskuliburua** egiteko prozesuari ekin zaio. Genero-indarkerian eta adikzioen arretan esperientzia duten profesionalak parte hartzen dute eskuliburu horretan.

- **Kolektibo horiei zuzendutako esku-hartzeak sustatzen dituzten proiektuak**, tokiko elkarte eta erakundeak, mantendu eta bultzatzea, Osasun Sailak laguntzen aginduaren bidez finantzatuta. Hona hemen adibide batzuk:

- HIESaren aurkako borrokarako T4: gizarteratze-prozesua garatzea ahalbidetzen duten banakako ibilbideen Abantari proiektua. Gizarteratze-prozesuan dauden substantzien abusu-historiala duten pertsonen zuzenduta dago, bai eta osasun-sarean sartzeko zailtasunak dituztenei ere, motibaziorik eta ezagutzarik ez dutelako, edo beren tratamenduak betetzeko osagarri edo gainbegiratzeko sozial edo sanitario bat behar dutelako.
- Gizakia Fundazioa: Adikzioak dituzten pertsonentzako arreta integraleko zentroaren proiektua, diziplina anitzeko laguntza baten bidez, tratamendu-, laguntza- eta gizarteratze-beharrei erantzuteko.
- Jeiki Fundazioa: Paziente eta haien familientzako Aukera proiektua, substantzia toxikoen adikzioak artatzeko, tratatzeko eta gizarteratzeko.
- Toki-erakundeetako prebentzio-talde guztiek arreta pertsonalizatua eta zuzena ematen diete beren udalerrietan detektatzen dituzten kasuei, eta, gainera, kaltetutako pertsonen

eta haien familiei laguntzeko proiektuak jartzen dituzte abian. Alde horretatik, honako proiektu hauek aipatu behar dira:

- Eibarko Udala: gizarteratzeko zailtasunak dituzten pertsonei laguntzeko proiektua.
- Ermuko Udala: arreta eta laguntza pertsonalizatuko proiektua.
- Bilboko Udala: mendekotasuna duten pertsonei eta haien familiei laguntzeko proiektua.
- Lea-Artibaiko Mankomunitatea: arreta pertsonalizatua emateko eta kasuak bideratzeko zerbitzua.

3.1.3 Desintoxikatzeko eta ohitura kentzeko dauden programak finkatzea.

• **Tabako-mendekotasunaren tratamendurako** programa, Osakidetzarena. 2011n abian jarri zenetik, gutxi gorabehera 22.500 pertsonak jaso dute tabakoa kontsumitzeari uzteko tratamendua, banakako eta taldeko esku-hartzeen bitartez. Osakidetzaren programa zabaldu den heinean, toki-erakundeek tabako-kontsumoa eteteko proiektua garatzeari utzi diote; hala, azken urteetan oso gutxi izan dira ekimen horiek, eta 2020an Galdakaoko Udalak soilik aurkeztu du adikzioen laguntzei buruzko agindua, 15 pertsonak parte hartzen duten talde-tratamenduko proiektua.

Lehen mailako arretan tabako-mendekotasunerako tratamendua jaso duen pertsona-kopurua

	Talde-terapia Guztira			Banakako-terapia Guztira		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
2017	543	372	915	1.076	989	2.065
2018	306	218	524	944	915	1.859
2019	427	253	680	1.040	1.019	2.059
2020	324	282	606	3.837	3.983	7.820

Iturria: Osakidetza.

• **Tabakismoaren tratamendu farmakologikoa.** 2020an, tabakoaren mendekotasuna gainditzen laguntzeko medikazioaren finantzaketa onartu zen. Gehien erabiltzen diren botikak bareniklina eta bupropioa dira. Sendagai horien finantzaketa jasotzeko, beharrezkoa da 18 urtetik gorakoa izatea, tabakismoaren tratamenduan laguntzeko programa baten barruan egotea (banakakoa edo taldekoa), eta erreferentziazko osasun-profesionalak agindu izana. Urtean ahalegin bat finantzatzen da, eta, beste medikamentu batzuekin gertatzen den bezala, pertsona bakoitzari dagokion zenbatekoa ordaintzen zaio.

Tabakoa erretzeari uzteko sendagai lagungarriak finantzatzea

	Botiken kostua	Zenbat pertsonari agindu zaie
2020	1.980.000	11.001

3.1.4 Osakidetzarekin lankidetzan aritza alkoholaren kontsumoa prebenitu, era goiztiarrean detektatu, diagnostikatu eta tratatzeko esku-hartzeen koordinazioan.

- **Adingabeak eta Alkohola programan** (1.4.17 ekintzan aipatu da), helburu hori lortzeko xedea duten jarduketak barne hartzen dira.
- Osakidetzak adingabeengan alkoholaren kontsumoa prebenitu, diagnostikatu eta tratatzeko esku-hartze programa bat dauka.



https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_trbg_planes_programas/eu_def/adjuntos/programa_menores_y_alcohol_2018_eu.pdf

3.1.5 Kalamuaren kontsumoarekin erlazionatutako arazoak dituzten pertsonen zuzendutako hautemate-, laguntza- eta tratamendu-ekimenak garatzea.

- Osasun Sailak adikzioen arloan ematen dituen laguntzei buruzko aginduaren bidez, talde horiei zuzendutako eta erakundeek garatutako **esku-hartzeak** mantentzea eta bultzatzea, adibidez:
 - Minbiziaren Aurkako Gipuzkoako Elkarteak: "Gipuzkoan tabakismoa eta kalamuaren kontsumoa prebenitzeko eta murrizteko proiektua". Besteak beste, DBHko ikasleen artean tabakoaren eta kalamuaren mendekotasuna gainditzeko tailerrak egitea aurreikusten du.
 - Oriepsi Orain: arriskuak eta kalteak murrizteko "Cannabia proiektua", Euskadiko kalamu-kontsumitzaileen klubetako bazkide eta kalamu-kontsumitzaile helduei zuzendua.

3.1.6 Joko patologikoa, teknologia digitalen adikziozko erabilera eta adikzioa sor dezaketen beste jokabide batzuk dituzten pertsonen zuzendutako arreta integralerako, tratamendurako eta kudeaketarako ekimenak zerbitzu publikoetatik indartzea.

- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak eta **Osakidetzako Osasun Mentalaren Sareak** gai horri heldu diote ohiko bileretan eta harremanetan.
- Laguntzei buruzko aginduaren bidez, **substantziarik gabeko adikzioak dituzten pertsonak tratatzeko esku-hartzeen** berariazko proiektuak egin dira:
 - Joko patologikoak eragindako pertsonen laguntza eta tratamendua ematea: esku-hartze goiztiar eta zuzena, psikologikoa eta psikohezitzailea, bai erabiltzailearentzat, bai

familiarentzat eta/edo inguruko gizarte-ingurunearentzat (Deustu-San Inazio modulu psikosoziala).

- Laguntza integrala joko patologikoak eta substantziarik gabeko adikzioek eragindako pertsona eta haien familientzat: ludopatia eta substantziarik gabeko beste adikzio batzuk pairatzen dituzten pertsonen errehabilitazioa eta gizarteratzea bilatzen du. (Ekintza-Aluviz elkarte).
- Jokabide-adikzioak dituzten emakumeei arreta ematea. Kaltetutako emakumeei laguntzeko taldea: errehabilitazioaren bidean aurrera jarraitu ahal izateko motibazio nahikoa aurkitzeko eta mantentzeko gune bat eskaini nahi du. (ASAJER).
- Jokabide-adikzioak dituzten pertsonen tratamendua: jokabide-adikzioak (ausazko jokoak eta apustuak, erosketak, teknologiak...) dituzten pertsonen laguntza psikologikoa ematea. Bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzea, eta bizitza zein ingurukoak hondatzen dituzten jokabide konpulsiboetatik aske bizitzeko beharrezkoak diren aldaketak egitea du helburu. (ASAJER).
- Biderako gizarteratze-programa: ausazko jokoaren eta apustuen mende dauden eta horien abusua egiten duten pertsonen laguntza gizarteratze-erantzutea du helburu (ASAJER).
- Jokaera: azken teknologien erabileraren eta apustuen zein ausazko jokoaren inguruko jokabide problematikoak dituzten pertsonen laguntza psikologikoa emateko programa pilotua, banakako, familiarik eta taldeko esku-hartzeen bidez (Gizakia Fundazioa).
- Adingabeei eta adin nagusikoei zein haien familiei jokabide-adikzioekin laguntzeko eta pertsona horiek gizarteratzeko eta tratatzeko proiektua (Jeiki Fundazioa).
- Adikzio psikologikoak prebenitzea eta horietatik errehabilitatzea, eta familiei laguntza psikologikoa ematea: entzuteko eta biltzeko leku bat eskaintzen die kaltetutako pertsonen eta haien senideei, emozioei eusteko eta laguntza psikologikoa emateko esparru bat aurkitu ahal izateko, jokabide-adikzioetatik errehabilitatzen laguntzeko (Ekintza-Bibe Elkarte).

3.1.6 bis Xede terapeutikoak dituzten drogen erabilera nazioarteko komunitatearen zientzia- eta osasun-bermean edo kalteak murrizteko programetan oinarritzea.

GABIA Adikzioen Behatokian, modu sistematiko eta eguneratuan txertatzen dira drogek populazioaren osasunean dituzten ondorioei buruzko txostenak eta azterketak, oinarri zientifikoa dutenak).

3.2 helburua. Urrakortasun-maila altuan eta gizartetik baztertuta dauden pertsonen tratamendua, arreta eta baliabideak jasotzeko modua bermatzea.

Ekintzak:

3.2.7 Baztertze-egoera larrian dagoen eta hondatze fisiko, psikiko eta sozial handia duen pertsonari arreta integrala ematea sustatzen duten jarduketak, baliabideak eta esku-hartzeak sendotzea eta ekintzak garatzea. Hala, arreta horren baitan arriskuak zein kalteak murriztea, pertsona horren oinarriko beharretarako laguntza eta estaldura sartuko dira, neurri penalak dituzten droga-mendekoak ere barnean hartuko dira eta kontuan hartuko da egoera horretan dauden emakumeekiko gutxiespen eta bazterketa sozial handiagoak.

- **Baliabide soziosanitarioak eta kalteak murriztekoak** mantentzen dira. Zenbait erakundek finantzatzen dituzte elkarrekin: Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak.

Eusko Jaurlaritzaren finantzazioa (€-tan)

Erakundea	Baliabidea	2017	2018	2019	2020
Hiesaren Aurkako Bizkaiko Herri Batzordea	Eskakizun txikiko eta arreta eta larrialdi soziosanitarioko eguneko baliabidea gizartetik baztertuta dauden droga-mendekoentzat	76.000	76.000	76.000	76.000
Gizakia Fundazioa	Bilbon adikzioei arreta emateko zentro soziosanitarioa. "Anden 1"	166.101	166.101	166.101	166.101
Bilboko Elizbarrutiko Caritas	"HONTZA" gaueko larrialdi- eta harrera-zentroa	146.130	146.130	146.130	146.130

- Laguntzen aginduaren bidez, **kolektibo horiei zuzendutako esku-hartzeak sustatzen dituzten hirugarren sektoreko erakundeen programak** mantentzea eta bultzatzea:

- Irteera programatuak, askatasunik gabe dauden drogazaleekin eta espetxeko jarraipen pertsonalizatuko taldeekin, substantzien abusua, kontsumo arazotsua eta joko patologikoa duten espetxeratuuekin, aldaketa-prozesuak indartzeko, espetxetik kanpoko espazioetan eta denboretan jokabide-patroi osasungarriak, balioak eta baliabide pertsonalak eskuratzetik hasita (Bide Sari elkarte).
- Drogak erabiltzen dituen ijito zigortuak berriz gizarteratzeko eta errehabilitatzeko proiektua: berriz gizarteratzeko beste aukera bat eskaintzen die droga-mendekotasun-arazoak dituzten zigortuei, zigorra betetzen dutenetik gizarteratu arteko bidea egiteko, eta prestakuntza-/hezkuntza-baliabideak eta baliabide terapeutikoak ematen dizkie egokitutako jarraibide psikosozialak errazago eskuratzeko (Gao Lacho Drom Ijito Elkarte).

Jokabide-adikzioei dagokienez, ASAJER proiektua aipa daiteke:

- Jokabide-adikzioak dituzten emakumeei arreta ematea. Emakume kaltetuei laguntzeko taldea, 3.1.6 ekintzan aipatutakoa.

- Alarma-egoera deklaratu ondoren, adikzioak dituzten pertsona asko (bazterketa-egoeran egon edo ez) adikzioen kontrako baliabideak eta programak erabiltzeko aukerarik gabe geratu ziren. Bertaratze-falta hori ordeztzeko, errekurtsio bereziak jarri ziren martxan:

- Buruko osasunaren arretarako telefonoa.
- Eskola prebentzioko programak, formatu digitalean.

- **Erdur proiektua.** Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak bi laguntza-baliabide biltzen dituen ekimen hau bultzatzen du:

- Hiru lurralde historikoetan arreta emateko unitate mugikor espezializatuak; beharra dagoen lekuetara joaten dira, bertan egiten ari den lanaren osagarria den adikzioen inguruko arreta eskaintzeko, osasun- eta gizarte-babeseko sistemekin koordinatuta.
- Adikzioei buruzko arreta telematikoa, honako hauei zuzendua: konfinamendu-egoerak kontsumo-hazkundearen aurrean arrisku-egoeran jartzen dituen pertsoneri; orain arte tratamendu-baliabideetara hurbildu ez diren, baina pandemian beren egoeraz jabetu diren eta baliabideak edo harremanetarako moduak ezagutzen ez dituzten pertsoneri; eta adikzioen esparruan lan egiten duten baliabide sozial eta soziosanitarioetako profesionaleri.

3.2.8 Dauden baliabideetara eta programetara sartzeko irizpideak berrikustea, adikzioekin erlazionatutako arazoan aurrean sentsibilitate handiagoa bultzatuz.

Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko 1/2016 Legeak osasun zerbitzuek beren zerbitzuak ematean bete beharreko irizpideak ezartzen ditu.

3.3 helburua. Koordinazio soziosanitarioa indartzea larrialdietako protokoloetan eta maila guztietako arretan.

Ekintzak:

3.3.9 Eusko Jaurlaritzak eta eskumenak dauzkaten gainerako erakundeek osasun- eta gizarte-sektoreen arteko koordinazio-mekanismoak aztertzea eta, hala badagokio, garatzea, ezartzea eta lan egiten jarraitzea, adikzioak eta arazoak sortzen dituzten jokabideak eta kontsumoak dituzten pertsoneri arreta integrala eta eraginkorra bermatzeko, arretarako ibilbideak eta protokoloak era adostuan definituz.

- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak **topaketak eta bilerak egiten ditu aldizka Euskadiko arreta soziosanitarioaren arduradunarekin.**

- **Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak** bilerak egiten ditu, aldizka, **Osakidetzako** eta Osasun Mentaleko Sareko **arduradunekin**, tabakoaren eta alkoholaren inguruan.

- **Bilerak eta harremanak** Osakidetzako **Osasun Mentaleko Sarearekin**, **substantziarik gabeko adikzioetan** esku hartzeko.

- **Genero-indarkeria pairatzen duten eta adikzio-arazoak dituzten emakumeei laguntzeko jardunbide egokien eskuliburua** egiteko prozesuari hasiera ematea, emakume horiei arreta koordinatua emateko ibilbideak identifikatzeko (1.1.6 eta 3.1.2 ekintzetan aipatu da).

4. ARDATZA: Ezagutzaren, prestakuntzaren eta ebaluazioaren kudeaketa

HELBURU OROKORRA: Adikzioen eta horien zergatien eta ondorioen alorreko ikerketan, hedapenean eta ezagutzan aurrera egitea, baita alor horretan planteatzen diren programen eta ekimenen ebaluazioan ere.

4.1 helburua. Adikzioen alorreko ezagutzaren garapena bultzatzea.

Ekintzak:

4.1.1 Genero-ikuspegiarekin, hainbat adikzio-substantziaren kontsumoaren prebalentzia eta ereduak monitorizatzen jarraitzea, baita EAEko biztanlerian azaleratzen ari diren portaera-adikzioen egoera eta bestelako arazoak ere, Euskadi eta Drogak inkestaren bidez, Osasun Inkestaren bidez eta horiek osasunean duten ondorioei buruzko ikerketarako bestelako azterketa espezifikoaren bidez. Adikzioen arloko ikerketan eta ezagutzan aurrera egiten jarraitzeko helburuarekin, prebalentziaren, hainbat adikzio-substantziaren kontsumo-ereduen, EAEko biztanlerian azaleratzen ari diren jokabide-adikzioen egoeraren eta bestelako arazoaren monitorizazioa indartzea, genero-ikuspegiarekin, eta osasuna baldintzatzen duten gizarte-elementuak kontuan hartuta. Horretarako, maiz, gazteen eta helduen substantzia-kontsumoen eta jokabide-adikzioen funtsezko adierazleei buruzko datu adierazgarriak lortuko dira, ikerketarako azterketa espezifikoaren bidez, baita Euskadi eta Drogak inkestan, Osasun Inkestan eta beste prospekzio interesgarri batzuetan oinarrituta egindako azterketen bidez ere.

- 2020an, COVID-19aren pandemia hasi ondoren, adikzioen esparruan duen eraginari eta ondorioei buruzko azterlan bat egin zen. Adikzioen prebentzioko eta arretako profesionalen bitartez, pandemiaren kudeaketa- eta kontrol-neurrien (konfinamendua, distantzia fisiko eta soziala, ikastetxeen itxiera, etab.) ondorioz substantzien kontsumoan eta gehiegizko portaeretan izandako aldaketak ezagutzea izan zen helburua. Azterlana genero-ikuspegiarekin diseinatu zen, sexuaren, genero-aldagaien (senideak zaintzea) eta adinaren arabera bereizitako emaitzak kontuan hartuta.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_gabia/eu_def/adjuntos/Covid-Adikzioak-Laburpen-exekutiboa-Prebentzioa.pdf

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_gabia/eu_def/adjuntos/Covid-Adikzioak-Laburpen-exekutiboa-Zuzeneko-esku-hartzea.pdf

- IDDK ikerketa-proiektu bati buruzko azterlan bat egin zuen: **Drogen, diruzko jokoaren eta beste arrisku-jokabide batzuen Euskadiko gazteen kontsumoa** aisia-eremu berrietan (gazteen lonjak) ikerketa-proiektuari buruz.

4.1.2 Lankidetzaren egituratua izatea adikzioen ikerketan eta ezagutzan lan egiten duten erakundeekin.

- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak bi lankidetzaren hitzarmen ditu, adikzioen arloko ezagutza ikertu eta garatzeko, SIIS Euskal Autonomia Erkidegoko Droga Mendekotasunen

Dokumentazio Zentroarekin eta Droga-menpekotasunen Deustuko Institutuarekin. 2020an, lehenak 100.000 €-ko urteko aurrekontua izan zuen, eta bigarrenak, 73.200 €-ko partida.

- Bestalde, EHUko Kriminologiaren Euskal Institutuarekin ere lankidetzan aritu da. 2020an, lankidetzaren hau gauzatu zen: "Adikzioen arloko araudia garatzeko administrazio-eremuan jarraibide komunak ezartzeari buruzko Euskadiko azterlana", 2.1.1 ekintzan aipatua.
- Genero-indarkeria pairatzen duten eta adikzio-arazoak dituzten emakumeei laguntzeko jardunbide egokien eskuliburua, 1.1.6, 3.1.2 eta 3.3.9 ekintzetan aipatua.
- 2020an, pandemia kontrolatzeko neurriak etengabeko egin zuten **Eskola-eremuan ZAINDU aplikazioa ebaluatzeko ikerketa-ekintza proiektuaren** landa-lana, 4 ikastetxetan garatzea aurreikusita zegoena. Alde batetik, ikastetxeak ixteak eta, bestetik, proiektuko esku-hartzeak egingo zituzten Lehen Mailako Arretako profesionalen lan ez-presentzialak.
- Gainera, laguntzen aginduaren bidez, adikzioen inguruko egoera epidemiologikoa zein den jakiteko ikerketak eta ebaluazioak finantzatzen dira, batez ere. Ildo horretan, Galdakaoko Udalaren adibideak aipa daitezke; izan ere, 2020an "Gazteria arloko estrategia zehazteko diagnostikoa" izeneko azterlana, edo Zornotzako Udalak etorkizuneko jarduerari-ildoak eta -ardatzak diseinatzeko egiten duen adikzioen tokiko planaren ebaluazioa egin ditu.

4.1.3 **Jokoaren, teknologia digitalen eta beste portaera-adikzio batzuen alor espezifiko ezagutza garatzea, fenomeno dimentsionatzeko, jokabideen kontzeptualizazioan eta sailkapenean sakontzeko eta baloraziorako irizpide komunak ezartzeko.**

- "**Esku-hartze praktikoa jokabide-adikzioekin**" ikastaroa, 2020ko azaroaren 26an eta 27an egin zen Deustuko Unibertsitatean, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Laguntza telematikoa jasotzeko aukera egon zen.
- "**Jokoarekiko mendekotasuna: prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua**" IDDK antolatutako jardunaldian parte hartzea. Jardunaldi hori telematikoki egin zen, 2020ko otsailaren 4tik martxoaren 3ra. AESEdek eman zuen eta Drogei buruzko Plan Nazionalaren barruan antolatu zen.

4.1.4 **Adikzioen eremuan gizonen eta emakumeen artean dauden desberdintasunei eta berezitasunei buruzko ezagutza sortzea, baita adikzioen prebentzioan eta arretan dauden genero-desberdintasunei buruzkoa ere.**

- XXVII. Simposiuma, "**Droga-mendekotasunen inguruko aurrerapenak. Emakumeak eta Psikofarmakoak**" gaiari buruz, Droga-menpekotasunen Deustuko Institutuak antolatuta, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. 2020ko urriaren 29an egin zen, aurrez aurre eta telematikoki, eta osasunaren eta adikzioen arloan lan egiten duten talde profesionalentzat eta lanean genero-ikuspegia txertatzeko interesa duten talde profesionalentzat izan zen. "
- "**Genero-ikuspegia Gizonekin, Drogen erabilera eta Adikzioak**" tailerra, adikzioen prebentziorako esku-hartzeak abian jartzen dituzten profesionalentzat. 2020ko abenduaren 10ean eta 11n egin zen, Deustuko Unibertsitatean, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Laguntza telematikoa jasotzeko aukera egon zen.

4.2 helburua. Adikzioen alorreko prestakuntza eta ezagutza garrantzitsuen hedapena bultzatzea, alor horretan lan egiten duten pertsonen artean, batez ere.

Ekintzak:

4.2.5 Adikzioen Behatokia indartzea, adikzioen alorrean lan egiten duten profesionalen artean ezagutza hedatzeko eta informazioa gordetzeko.

Adikzioen Behatokia arautzea, abian jartzea eta hari baliabide nahikoak esleitzea, 1/2016 Legean jasotako edukiak eta baldintzak bete ditzan, hain zuzen zientzian liderra izateko funtzioa bete dezan, ezagutzaren hedapenari, datuen eta haien iturrien eguneratzeari dagokienez, adikzioen eremuan diharduten profesionalentzat eta arreta-programetan parte hartzen duten gizarte-mugimenduentzat.

Gainera, Haurren eta Nerabeen Behatokiak eta Gazteen Euskal Behatokiak plan honen jarduketak aintzat hartu behar dituzte, eta analisi- eta informazio-elementuak ekarri, adikzio-substantzien kontsumoa eta eskaria eta adikzio-azturak murrizteko parte hartzen duten erakundeen jarduketa osatzeko.

<https://www.euskadi.eus/gabia-droga-mendekotasunen-euskal-behatokia/>

- Adikzio Zerbitzutik **gaiari buruzko datuak** ematen zaizkie **zenbait organismo eta erakunderi** (adibidez, Drogen Plan Nazionala, Gazteen Euskal Behatokia) eta beste plan instituzional batzuk (inklusioa, gazteak, familia...) eta haien jarraipenak egiteko laguntza ematen da.
- **6 ikerketa**-jarduera egin dira SIIS (Droga Menpekotasunen Euskadiko Dokumentazio Zentroa), IDD (Droga-menpekotasunen Deustuko Institutua) eta KREI (Kriminologiaren Euskal Institutua) erakundeekin batera, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarekin sinatutako hitzarmenen eta kontratuaren esparruan:
 - Adikzioen arloan araudia garatzeko administrazio-eremuan jarraibide komunak ezartzeari buruzko Euskadiko azterlana.
 - Drogen, diruzko jokoaren eta beste arrisku-jokabide batzuen Euskadiko gazteen kontsumoa aisia-eremu berrietan (gazteen lonjak).
 - Emakumei eta psikofarmakoen kontsumoari buruzko monografikoa.
 - Zahartzeari eta Adikzioei buruzko monografikoa.
 - COVID-19aren inpaktua eta ondorioak adikzioen eremuan, Euskadin.
 - Kalamuari eta gazteei buruzko Euskadiko ikerketa-protokoloa egitea. Landa-lana ez zen hasi pandemia agertu zelako eta COVID-19ak adikzioen Euskadiko esparruan duen eraginari buruzko azterlan bat lehenetsi zelako.

4.2.6 Adikzioen alorrean informazio eta ezagutza garrantzitsua hedatzeko kanalak ezartzea:

- Sare sozialetako komunikazio-estrategia.
- Laguntza argitalpenetan eta izaera orokorreko prestakuntza-jardueren antolakuntzan.
- Osasun Saileko Adikzioen Zerbitzuaren eta Euskadiko Droga-mendekotasunen Dokumentazio Zentroaren (Drogomedia) webgunearen garapena eta hedapena, funts dokumentala handituz eta tresnak gehituz.

• **GABIA Adikzioen Behatokiak** Euskadin egindako **azterlan zientifikoak** zabaltzen ditu, baita adikzioen arloko profesionalentzat interesgarriak diren beste arlo batzuetako dokumentu teknikoak ere.

<https://www.euskadi.eus/informazioa/argitalpen-teknikoak/web01-a3gabia/eu/>

Adikzioen arloko albiste eta ekintza garrantzitsuak ere zabaltzen dira. Gainera, arriskuen prebentziorako lerroan jasotako laginen analisiaren alerta-txostenak eta toxikotasun-emaitez argitaratzen dira.

<https://www.euskadi.eus/informazioa/alerta-sistema-gabia/web01-a3gabia/eu/>

• Drogomedia dokumentazio zentroak, **webgunearen bidez ematen duen informazioaz gain, profilak ditu facebooken eta twitterren (@Drogomedia).**

<https://www.drogomedia.com/eu/>

• Droga-menpekotasunen Deustuko Institutuak antolatzen dituen symposium eta tailerren edukiak argitaratzen laguntzen da.

4.2.7 Prestakuntza-ekintzak garatzea eta dibulgazio-materialak sortzea, adikzioen alorrean lan egiten duten profesionalentzat, haien beharren azterketan oinarrituta eta ekitate-ikuspegia barne hartuta.

• **Droga-menpekotasunen Deustuko Institutuak (IDD) urtero antolatzen dituen mintegiak, Eusko Jaurlaritzak finantzatuta.**

• Droga-menpekotasunen Deustuko Institutuarekin (IDD) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Droga-menpekotasunen Dokumentazio Zentroarekin (SIIS) sinatutako lankidetzak-hitzarmenen esparruan urtero droga-mendekotasunen arloan lan egiten duten profesionalentzat egiten diren **ikastaroak eta tailerrak:**

Adikzioen inguruko prestakuntza-ekintzak

2017	SIIS	Tailerra	Alkoholaren prebentzioan jokabide egokiak identifikatzea.
	IDD	Jardunaldia	Drogen kontsumoa prostituzio-testuinguruetan.
		Jardunaldia	Genero-ikuspegia droga-mendekotasunetan txertatzea.
		Jardunaldia	Gizarte-programen emaitzen ebaluazioa: ikerketa-metodologia eta eraginkortasunaren balorazioa.
2018	IDD	Jardunaldia	Berrerortzeen prebentzioa emakumeekin, genero-ikuspegitik.
		Jardunaldia	Genero-ikuspegia drogen kontsumoan eta beste adikzio batzuetan.
		Jardunaldia	Gizarte-programen eta -proiektuen ebaluazio-ikerketa, teknika kuantitatibo eta kualitatiboekin.
	Ikastaroa	Lan-eremuan drogen kontsumoa prebenitzeari buruzko sentsibilizazioa.	
2019	IDD	Jardunaldia	Jokabide-adikzioak (harreman-mendekotasunak, erosketa konpulsioa, ludopatia, Interneten eta sare sozialen erabilera desegokitu).
		Jardunaldia	Gazteen eta nerabeen substantziarik gabeko adikzioak detektatzeari, prebenitzeari eta haietan esku hartzeari buruzko mintegia.
		Jardunaldia	Gizarte-programak eta -proiektuak teknika kuantitatibo eta kualitatiboekin ebaluatzea.
		Jardunaldia	Emakumeak eta drogak. Gaixoberritzeak genero-ikuspegiarekin prebenitzea.
	Jardunaldia	Genero-ikuspegia drogen kontsumoan eta beste adikzio batzuetan.	
2020	IDD	Jardunaldia	Adikzio-jokabideen prebentzioari buruzko lanketa berriei buruzko mintegia.
		Ikastaroa	Jokabide-adikzioen inguruko esku-hartze praktikoa.
		Tailerra	Genero-ikuspegia Gizonekin, Drogen erabilera eta Adikzioak.
		Jardunaldia	Kalamua gaztaroan, arriskuak eta esku hartzeko proposamenak.

“Kalamua gaztaroan, arriskuak eta esku hartzeko proposamenak” jardunaldia 2020ko abenduaren 16an egin zen, Deustuko Unibertsitatean, Eusko Jaurlaritzaren lankidetzarekin, eta telematikoki egiteko aukera egon zen.

- Beste jardunaldi eta foro batzuk:
 - 2020an, Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko kontratazioaren bidez, 9 prestakuntza-tailer egin dira, bi orduko bi saiotan, online formatuan, droga-kontsumoaren arriskuak prebenitzeari eta murrizteari buruz. Arlo soziosanitarioko 53 profesionalek, toki-erakundeetako teknikariek, kale-hezitzaileek eta abarrek parte hartu dute, 14 udal eta mankomunitatetakoek.
 - **“Aisialdiko testuinguruetan drogen kontsumoarekin lotutako arriskuak prebenitzeko eta murrizteko prestakuntza”**. Bi saioko bederatzi gaikuntza-tailer, berriaz Euskadiko toki-erakundeetako adikzioen arloko talde teknikoei zuzenduak, Ai Laket elkarteak emanak eta Eusko Jaurlaritzak laguntzen aginduaren bidez finantzatuak. Telematikoki egin ziren, 2020ko azaroaren 2tik abenduaren 23ra bitartean.

4.2.8 Portaera-adikzioei buruzko prestakuntza-programa berezia garatzea, adikzioen alorrean lan egiten duten profesionaleri, lehen mailako arretako osasun-zerbitzuei, gizarte-zerbitzuei eta hirugarren sektoreari zuzenduta eta gizonen eta emakumeen berezitasunak kontuan hartuta.

- "Esku-hartze praktikoa jokabide-adikzioekin" ikastaroa, 4.1.3 ekintzan aipatua.
- Aisialdiko substantziarik gabeko adikzioei buruzko topaketa, Gazteriaren Kontseiluak antolatuta, 2020ko abenduaren 18an. Bertan, 3 hizlarik hartu zuten parte, 10 pertsona aurrez aurre aritu ziren, eta 22, berriz, telematikoki.



4.3 helburua. Adikzioen alorreko programa publikoen ebaluazio-sistematika garatzea eta ezartzea..

Ekintzak:

4.3.9 Gauzatutako edo lagundutako programen eta ekimenen esparru metodologikoa eta jarraipen- eta ebaluazio-jarraibideak garatzea, genero-ikuspegia kontuan izanda.

- Programen jarraipen- eta ebaluazio-jarraibideei dagokienez, 2018az geroztik eta etengabeko hobekuntzekin, adikzioen arloko laguntzak izapidetzeko plataforma bat jarri da martxan, eta toki-erakundeek eta hirugarren sektoreak egindako programak eta proiektuak zehatzago ebaluatzeko aukera ematen du. Gainera, izapidetze-plataforma horretan adierazle itxi batzuen arabera sailkatutako datu guztiak iraultzen dira, eta erakunde eskatzaileek erregistratutako informazioa estandarizatzen eta bateratzen da; horri esker, analisi estatistikoa egin daiteke.

Hala, hainbat alderdiri buruzko informazioa jasotzen da: erakunde eskatzaileari buruzkoa, proiektuaren hartzaile den erakunde motari buruzkoa, hartzaile motari buruzkoa, eta hori guztia adinaren, hezkuntza-mailaren, generoaren, lurralde historikoaren edo jardueraren ardatz eta eremuaren arabera. Horrela, alderdi zehatzak ezagut daitezke; esaterako, DBHko 1. zikloko zenbat ikaslek parte hartu duten hezkuntza-esparruko prebentzio unibertsaleko programetan eta zenbat ikastetxetan, edo 12 eta 18 urte bitarteko zenbat neskek parte hartu duten lonjetan helburu ludikoekin egindako jai- eta aisialdi-arloko prebentzio selektiboko proiektuetan, edo zenbat gurasok parte hartu duten prebentzio selektiboko programetan, familia eremuan, edozein lurralde historikotan.

4.3.9 bis Planaren ebaluazio egokia egiteko, adierazle homogeenak eta datu eguneratuak barne hartzea eta horietan oinarrituta sailkatzea planaren helburuak eta xede horretarako planteatzen diren ekintzak. VII. Adikzio Planaren ebaluazioa Administrazioetik kanpo dauden espezialisten eta organo independenteen esku utziko da.

• Adikzioen eragina eta bilakaera ezagutzeko, Eusko Jaurlaritzak honako inkesta hauetatik lortutako informazioa dauka:

- Adikzioen 2017ko Inkesta
<https://www.euskadi.eus/informazioa/euskadi-eta-drogak/web01-a3gabia/eu/>
- EAEOI 2018
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_enc_salud_2018/eu_def/adjuntos/DatuGarrantzitsuak_EAEOI2018.pdf
- Drogak eta Eskola 2018
<http://www.deusto-publicaciones.es/index.php/main/libro/1267>
- EDADES eta ESTUDES inkestak, Drogen Plan Nazionalak egindakoak (Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa).
https://pnsd.sanidad.gob.es/profesionales/sistemasInformacion/sistemaInformacion/encuestas_EDADES.htm
https://pnsd.sanidad.gob.es/profesionales/sistemasInformacion/sistemaInformacion/encuestas_ESTUDES.htm

• Jokabide-adikzioei dagokienez, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak egindako inkestaz gain, Jokoaren Euskal Behatokiak dokumentu bat argitaratu zuen 2020an, "**Euskal herritarren gizarte-pertzepzioa eta joko-ohiturak**" jasotzen dituen.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/job_e_informes_memorias/eu_def/adjuntos/INFF_E4922_Observatorio-Vasco-del-Juego-PERSPECTIVA-SOCIAL_v05_eus.pdf

Informazio-iturri horiek erabiltzeko interesa duela hamarkada batzuetatik hona aldizka egitean eta prebalentziak neurtzeko antzeko adierazleak erabiltzean datza. Datuen homogeneizazio metodologiko eta etengabeko eguneratze horri esker, adikzioei buruzko Euskadiko joera esanguratsuenak zein diren jakin daiteke.

• **EAEOI 2018:** Osasun-inkesta hau 5 urtean behin egiten da, eta aukera ematen du euskal herritarren osasunari buruzko argazki finko bat lortzeko, osasun-arretaren beharrak antzemateko eta baliabideen esleipen egokia errazteko. Osasunarekin lotutako jokabideen artean, tabakoaren eta alkoholaren kontsumoaren prebalentzia aztertzen du, eta ondorioztatzen du tabakismoak etengabe egin duela behera azken urteotan. Era berean, murriztu egin da ohiko edale gisa hartzen diren pertsonen proportzioa, hau da, astean behin gutxienez edaten dutenena.

• 2017az geroztik, 2020ko edizio honetan bezala, Adikzioen Zerbitzua Adikzioen Planaren garapenari buruzko urteko ebaluazioak egiten ari da, eta ebaluazio horietan prozesu-adierazleei buruzko datuak jasotzen dira. Hala, Planaren indarraldiaren amaieran, informazio zehatza izango da ardatz eta jardun-eremu guztietan egindako lanaren irismenari buruz, eta ekintza horiek euskal biztanlerian adikzioen prebalentziak murrizteko izan duten eragina aztertu ahal izango da, eta, hortik abiatuta, etorkizunean jarraitu beharreko lan-ildoak zein izan daitezkeen baloratu.

4.4 helburua. Alor horretan lan azpimarragarria egin duten ekimenen aitortza bultzatzea.

Ekintzak:

4.4.10 Pertsona edo erakunde jakin batzuek adikzioen prebentzioan, eskaintzaren murrizketan, arriskuen murrizketan, laguntzan, gizarteratzean, prestakuntzan edo ikerketan egin dituzten lana edo ibilbidea guztien aurrean aitortzeko ekintzak eta ekimenak bultzatzea. Horretarako eraturako epaimahaiek ordezkari itzura orekatua eduki beharko dute, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, jasotako irizpideak bete daitezzen. Lege horren ondorioetarako, ordezkari itzura orekatua izango da kide anitzeko administrazio-organoetan sexu bakoitzak gutxienez %40ko ordezkari itzura baldin badu.

- Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legea garatzen jarraituz, **Adikzioen arloko jardunbide egokien eta ibilbide profesionalaren aintzatespenak sortu eta zehazteko urtarrilaren 21eko 5/2020 Dekretua** argitaratu zen 2020an. Helburua da pertsonak edo erakundeek adikzioen arloko prebentzio-, laguntza-, gizarteratze-, prestakuntza- eta ikerketa-arloetan garaturako jardunbide egokie balioa ematea eta egindako lan jarraitua eta erreferentziala ezagutaraztea.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/decreto_5_2020/eu_def/adjuntos/5-2020-dekretua.pdf

- Jardunbide onenak eta ibilbide profesionala aintzatespenerako deialdiak egitea eta argitaratzea.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2020/09/2003638e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2020/09/2003637e.pdf>

- Deialdien prestaketa eta antolaketa:

- Irudiaren, markaren eta leloaren diseinua.
- Triptikoaren, kartelen, diplomaren eta sariaren diseinua.
- Deialdiak webgunean eta beste komunikabide batzuetan zabaltzea.
- Hautagaitzak aurkezteko tresna informatikoak egokitzea.
- Hautagaitzak berrikustea eta epaimahaiaren esku jartzea balorazioa egiteko behar diren tresnak.



5. ARDATZA: Lidergoa eta koordinazioa

HELBURU OROKORRA: Adikzioen alorrean inplikaturik dauden eragileen sistemaren funtzionamendu koordinatuan, kohesionatuan, eraginkorrean eta efizientean aurrera egiten jarraitzea.

5.1 helburua. Adikzioei buruzko arautegi berria eta VII. Plana hedatzea, aplikatzea eta garatzea.

Ekintzak:

5.1.1 Araudiaren eta planaren helburuak eta ildo orokorrak inplikaturik eragile guztiei jakinaraztea, komunikatzea eta haiekin konpartitzea.

- **Adikzioen VII. Planaren txostena** egitea, 2019. urteari dagokiona, planean jasotako ildoak pixkanaka ezartzen ari direla ebaluatzeko eta ikuspegi orokor bat emateko. Jarraipena eta balorazioa egin da zenbait adierazletan oinarrituta, eta aldi horretan egindako ekintzak zehaztu dira.
- Adikzioen VII. Planaren 2019ko txostena Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordeari bidaltzea.

5.1.2. Administrazio-maila guztietan arautegiaren aplikazioaren alorrean eskumenak dituzten ordezkariak parte hartuko duten lan-mekanismoak ezartzea, arautegiaren ulermenean sakontzeko eta ordenantzen garapenean jarraibide komunak definitzeko helburuz.

- 2020an, pandemia zela eta, ez ziren bildu adikzioen arloko partaidetza- eta kontsulta-organoak.
- **Jokoaren Batzorde Tekniko Aholkularia** 2020ko urtarrilaren 9an bildu zen.
- **Jokoaren Euskal Kontseilua** 2020ko urtarrilaren 9an bildu zen.
- **Jokoaren Euskal Behatokia** 2019ko abenduaren 5ean bildu zen.

5.1.3 Prebentziora zuzendutako udal-planak garatzea, bultzatzea eta babestea, plan honekin bat etorriz eta tokiko egoerara egokitzuz, eta orain indarrean daudenak indartzea, beharrezko koordinazio-maila bermatuz eta komunitatearen partaidetza eta sektoreen arteko lana sustatuz.

Udal-planen garapena bultzatzeko, Eusko Jaurlaritzak, adikzioen arloko laguntzei buruzko aginduaren bidez, aukera ematen die toki-erakundeei tokiko planak diseinatzeko eta egiteko laguntza eskatzeko. Horrela, tokiko planak etengabe eguneratzea eta udaletako eta mankomunitateetako prebentzio komunitarioko taldeak sortzea sustatzen da.

**Toki-erakundeen (udalak, mankomunitateak eta Arabako Foru Aldundia)
indarreko toki-planen kopurua**

	Toki-planak
2017	46
2018	47
2019	47
2020	47

Oharra: indarrean dauden edo gauzatzeko prozesuan dauden tokiko planen kopurua jaso da.

2020an, aurreko urteetako tokiko planen kopuru berari eutsi zaio, eta 47 toki-erakundek dute adikzioen plana: 23k Bizkaian, 22k Gipuzkoan eta 4k Araban.

Bizkaian, ondorengo hauek dute tokiko plana: Arratia, Busturialdea, Enkarterri, Lea-Artibai, Mungialde, Uribekosta eta Txorierriko mankomunitateak eta Amorebieta-Etxano, Arrigorriaga, Barakaldo, Basauri, Bilbao, Erandio, Ermua, Galdakao, Getxo, Leioa, Muskiz, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Ugao-Miraballes eta Zierbenako udalek.

Gipuzkoan: Bideberriko mankomunitateak eta Andoain, Aretxabaleta, Arrasate, Azkoitia, Azpeitia, Bergara, Donostia, Eibar, Elgoibar, Eskoriatza, Hernani, Hondarribia, Irun, Oñati, Ordizia, Tolosa, Usurbil, Zarautz eta Zumaiako udalek.

Eta Araban: Foru Aldundiarekin lotutako Arabako kuadrillek, eta Amurrio, Laudio eta Gasteizko udalek.

Horrek esan nahi du EAEko biztanleen %80 baino gehiago bizi direla adikzio-plana duen udalerriren batean.

Tokiko planen esparruan egindako programen eta proiektuen kopurua

	Bizkaia		Gipuzkoa		Araba		Proiektuak guztira
	Programak	Proiektuak	Programak	Proiektuak	Programak	Proiektuak	
2017	23	191	18	117	3	20	328
2018	22	77	20	91	3	9	177
2019	22	79	18	93	3	7	179
2020	21	80	16	71	2	11	162

Tokiko planen esparruan egindako lanaren ondorioz, 2020an udalek eta mankomunitateek 162 proiektu aurkeztu zituzten Eusko Jaurlaritzaren laguntza-aginduaren harira; horietatik 80 Bizkaian garatu ziren, 71 Gipuzkoan, eta 11 Araban.

Aipatu behar da 2018tik aurrera proiektuen kopuruak behera egin badu azken urteetan egin den laguntzen izapidetzea berregituratu eta berrantolatu delako izan dela, eta proiektu beraren barruan bildu direla askotan ekintzak edo esku-hartzeak.

5.1.3 bis Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legearen erregelamendu bidezko garapena burutzea.

2020an, apirilaren 7ko 1/2016 Legea erregelamendu bidez garatzen jarraitu da. 2020ko urtarrilaren 29an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen **5/2020 Dekretua, urtarrilaren 21ekoa, Adikzioen arloko jardunbide egokien eta ibilbide profesionalaren aitorpenak sortu eta zehaztekoa**. Helburua da publikoki aitortzea adikzioen arloan pertsonek

eta erakundeek egiten duten jarduera nabarmena, bai eta pertsona horiek adikzioen arloko prebentzio-, laguntza-, gizarteratze-, prestakuntza- edo ikerketa-arloetan garatzen dituzten jardunbide egokiei balioa ematea ere.

<https://www.euskadi.eus/52020-dekretua-urtarrilaren-21ekoa-adikzioen-arloko-jardunbide-egokien-eta-ibilbide-profesionalaren-aintzatespenak-sortu-eta-zehazten-dituena/web01-a3adipla/eu/>

Era berean, lanean jarraitu da Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legearen arau-garapena amaitzeko falta diren bi dekretuak idazteko aurretiazko azterketa- eta analisi-faseetan:

- Legearen 93. artikuluan aurreikusitako zehapenen ordezeko neurriak arautzeko dekretua.
- Kalamua kontsumitzen duten pertsonen erakundeak arautzeko dekretua.

5.2 helburua. Adikzioen alorrean inplikatur dauden eragile publikoen eta pribatuen arteko lidergoa, koordinazioa eta elkar-laguntza indartzea, sektoreen arteko lana eta sinergien aprobetxamendua sustatuz.

Ekintzak:

5.2.4 Adikzioen alorrean komunitate-mailako prebentzio- eta sustapen-talde teknikoak sortzeko eta mantentzeko, komunitate-mailako prebentzio-programak garatzeko eta arriskuen eta kalteen murrizketarako proiektuak egiteko eta jokabide osasungarriak sustatzeko diru-laguntzei buruzko aginduari eustea eta hori hobetzea.

- Osasun Sailaren adikzioen arloko **laguntzei buruzko agindua**. 2020an, 236.000 euro gehiago emango dira arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko hirugarren sektoreko erakundeen proiektuak finantzatzeko, "Euskadin ausazko jokoarekiko adikzioa eta substantziarik gabeko beste adikzio batzuk prebenitzea eta tratatzea" helburu duten proiektuak diruz laguntzeko.

2020an, toki-erakundeek eta GKE-ek adikzioak prebenitzeko eta artatzeko, eta arriskuak eta kalteak murrizteko 236 proiektu aurkeztu zituzten laguntza horietara.

Osasun Sailaren adikzioen arloko laguntza-agindua

	EHAako argitaratze-data	Zenbatekoa
2017	Abuztuaren 28a	2.618.400
2018	Ekainaren 29a	2.618.400
2019	Uztailaren 18a	2.618.400
2020	Ekainaren 15a	2.854.400

Deialdiak:

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2017/08/1704215e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/06/1803388e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/07/1903493e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2020/06/2002323e.pdf>

Emandako diru-laguntzen ebazpenak:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/03/1801655e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/05/1902344e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/04/2001882e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2021/05/2102644e.pdf>

- Adikzioen arloko laguntzak **Osasun Sailaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren** parte dira.

<https://www.euskadi.eus/sail-plana/osasun-sailaren-diru-laguntzen-plan-estrategikoa-2021erako-eduki-orokorra/web01-a2inform/eu/>

5.2.4 bis Adikzioen prebentzioan eta arretan inplikatura dauden eragile publiko eta pribatu guztiek hirugarren sektore sozialaren garrantzia aitortzea, sektoreen arteko koordinazioa hobetzea eta sare-lana areagotzea, behar nagusietara eta errealitate berrietara egokituz.

Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek, udalerriek, mankomunitateek eta kuadrillek sektore arteko ekintza eta adikzioen eremuan inplikatura dauden eragile guztien arteko koordinazioa bultzatzea eta sustatzea, baita sozietate zibil guztiaren partaidetza eta inplikazio aktiboa sustatzea ere.

2020an, bilerak eta topaketak egin dira adikzioen arloko hainbat eragilerekin:

- **Jokoaren Batzorde Tekniko Aholkularia** 2020ko urtarrilaren 9an bildu zen.
- **Jokoaren Euskal Kontseilua** 2020ko urtarrilaren 9an bildu zen.
- **Tabakoari eta generoari buruzko lan-jardunaldia**, Osakidetzarekin, 2020ko otsailaren 28an.
- **Edari alkoholduen eta tabakoaren arloko arau-hausteen ordezkoko beste neurri batzuk aplikatzeari** buruz toki-erakundeekin egindako bilera, bideokonferentzia bidez, 2020ko ekainaren 18an.
- **Tabakismoari buruzko lantaldea, Osasun Ministerioarekin eta beste autonomia erkidego batzuetako ordezkariekin.** Bideokonferentzia bana egin zen, 2020ko ekainaren 23an eta 2020ko azaroaren 17an.
- **Alkoholari buruzko lantaldea, Osasun Ministerioarekin eta beste autonomia erkidego batzuetako ordezkariekin,** bideokonferentzia bidez bildu ziren, 2020ko urriaren 23an.
- **COVID-19ak adikzioen prebentzioan eta tratamenduan duen eraginaren azterketa.** Bideokonferentzia SIISekin eta udaletako talde teknikoekin, 2020ko uztailaren 1ean, eta bideokonferentzia SIISekin eta hirugarren sektorearekin, 2020ko uztailaren 3an.
- **Drogei buruzko Plan Nazionalaren Konferentzia Sektoriala,** bideokonferentzia bidez, 2020ko azaroaren 26an.
- **Jokoaren Euskal Behatokia** 2020ko abenduaren 14an bildu zen.

5.2.5 Arlo horretan erakunde pribatuek egiten dituzten jarduerak bultzatzea eta, Adikzioen Institutio arteko Koordinazio Batzordearen, Adikzioen Euskal Kontseiluaren eta *ad hoc* sortutako beste foro operatiboen edo teknikoek bitartez, eragileen eta erakundeen arteko lankidetzaren bultzatzea, beti ere gizon eta emakumeen partaidetza orekatua izanda, eta genero-ikuspegia eta talde eta egoeren aniztasuna aintzat hartuta.

Horretarako, zenbait bilera egin dira Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzarekin, 5.1.2 ekintzan jasota daudenak.

5.2.6 Drogen Plan Nazionalarekin koordinazioa mantentzea, baita estatuko edo Europako beste egitura batzuekin ere.

Eusko Jaurlaritzak Drogen Plan Nazionalak deitutako bilera eta foroetan parte hartzen du. 2020an, COVID-19ak sortutako egoerak eragotzi egin du ohiko bilera-kopurua egitea, eta topaketa bakarra egin da:

- **Drogen Plan Nazionalaren Batzorde Sektoriala** bideokonferentziaz egin zen, 2020ko ekainaren 23an.

Bileretan parte hartzeaz gain, nabarmentzekoa da Drogen Plan Nazionalera eskatzen diren dokumentazio eta datu guztiak bidali izana. Era berean, konfiskatutako ondasunen funtsaren deialdian parte hartu du Eusko Jaurlaritzak.

Konfiskatutako ondasunen funtsaren ituna (€-tan)

	Zenbatekoa
2017	367.000
2018	370.000
2019	370.000
2020	370.000

5.2.6 bis Gazteen Euskal Kontseiluarekin elkarlanean, gazteek adikzioen gaia lantzeko parte hartzea sustatzea xede duten dinamikak eta prozesuak diseinatzea eta burutzea, berdintasun-politikan garatzen ari den programa, Beldur Barik, erreferentziaz hartuz.

- Urtero Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin elkarlanean aritzen gara Gazte Planean, eta, bertan, adikzioen gaian gazteen parte-hartzea sustatzera bideratutako politika guztiak hartzen dira barne.
- **“Substantziarik gabeko adikzioak astialdian” topaketan** parte hartzea, Gazteriaren Kontseiluak antolatuta, 4.2.8 ekintzan aipatu da.

5.2.6 ter VII. Adikzio Planaren garapenean unibertsaltasun-, solidaritate-, ekitate- eta jasangarritasun-printzipioak errespetatzen direla bermatzen jarraitzea, horren ekintzak genero-ikuspegira eta adin-talde bakoitzaren inguruabar zehatzetara egokitu daitezela.

- Adikzioen Zerbitzuak ekarpena egiten du adikzioen prebentzioaren, detekzio goiztiarraren eta arretaren arloko ekimenek **generoari, adinari, gizarte-klaseari eta hiriko eta landako eremuei dagokienez ekitate-ikuspegia** barne har dezaten.

- Gainera, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak bultzatzen dituen azterketa eta lanetan, bai beraren partaidetzaz bultzatzen direnetan bai kanpoan egiten direnetan, aipatutako printzipioak txertatzen dira, honako hauek kontuan hartzeko: auzoen maila sozioekonomikoa; gizonen eta emakumeen parte-hartzea, beraien beharren arabera; adin-taldeak, beraien ezaugarriekin, eta hirien zein herrien ordezkartza.